

2024 IRAILA

9. IRAILA: HELDU DA GURE MOMENTUA

Hileko motibazioa:

Ikasturte berri bat hasi dugu, eta lehen egunetik ikasleok protagonista izan nahi dugu. Etorri berriari harrera egin eta lagunduz. Urteko helburuak finkatzen hasiz. Sumatzen ditugun aldaketez ohartuz. Denbora planifikatuz, garrantzitsuena hautatuz. Eta bai, batzuetan kexatuz ere bai ados ez gaudenean. Eta protagonistak geu izango garen ikastaro batekin amets eginez.

Ira 09 – 15 astea

Motibazioa

Lehen aste honekin hasiko da ikasturtea. Elkartzeko denbora, urduritasun eta ezinegonen denbora, lagunak berriro ikusteko eta patioetan berriz gozatzeko denbora, zarata eta iskanbila, ikastetxe bete; ikasteko eta barruan daramagun onena ateratzeko denbora. Aste hau izan dadila aukeraz betetako ikasturte berri honen lehenengo kapitulua!

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

1. Otoitza: Jesus maitea, gure Maristen ikastetxean, ikasturte berri honetan, gure bidea argitzeko eskatzen dizugu. Bete gure buruak jakinduriaz, gure bihotzak maitasunez eta eskuak ikasten jarraitzeko trebetasunez. Ikasgela bakoitzean, gure familia marista handiaren fun-datzailea den Marcelinogandik ikas dezagula, eta gutako bakoitzak haren eremuan ikasle ona eta pertsona ona izateko inspirazioa aurki dezala. Amen.

2.- Testua: JAKINTSUAREN ETA ERGELAREN PARABOLA:

Seguru gutako gehienok liburuak erabiltzen ditugula eskolako lanak egiteko. Liburu horiek guztiak irakurri eta bakoitzak dioena gogoratuko bagenu ezagutza handia geureganatuko genuke, ezta? Baina halere ez ginateke nahitaez jakintsuak izango. Zein da ezagutzaren eta jakinduriaren arteko aldea? Informazio hori guztia ezagutzen badugu, hemen daukagu, buruan. Baina ezagutza hori geure eguneroko bizitzan erabiltzeko, ezagutzaz gain, jakinduria behar dugu. Horixe gertatzen da Jesusek kontatzen digun "Jakintsuaren eta Ergelaren parabolan".

Bi gizonek beren etxeak eraikitzea erabaki zuten.

Gizon ergelak harearen gainean eraiki zuen etxea.

Euriak iritsi zirenean eta lurra urak hartu zuenean...

... etxea erori egin zen.

Baina jakintsuak harkaitzaren gainean eraiki zuen etxea.

Euriak iritsi zirenean eta lurra urak hartu zuenean...

... Etxeak zutik iraun zuen!

Orain badakigu Jesusek zer esan zuen egin behar genuela. Ezagutza badugu, gomendagarria litzateke egunero praktikan jartzea. Hori da jakinduria.

ELKARREKIN: Jesus, zuk irakatsi zenuena ezagutu nahi dugu, baina askoz garrantzitsua goa, irakatsi zenigun guztia praktikan jartzeko jakinduria izan nahi dugu. Amen.

3. **Bideoa:** <https://www.youtube.com/watch?v=4tet-cuSd30> Gaur, UurUrl Gallenkucoa artista argazkilaria aurkezten dizuegu. Bere argazkiekin pertsona pribilegiatuen eta zapalduen arteko kontrasteak erakusten dituen artista turkiarra. Haren begiradaren bidez, gizarte arazoetara, gerretara eta beste bidegabekeria batzuetara hurbiltzen gara, eta horiek hausnarketa eragiten digute, batez ere Mendebaldean bizi garenon zorte bera ez duten haur askoren egoerari buruz.
4. **Abestia: "Oneday"** <https://www.youtube.com/watch?v=XqyKDCP5-xE> Koolulam ekimen soziomusikala da, eta bizitzako arlo guztietako pertsonak biltzea du helburu. Dena ordu batzuez geldiaraztea eta, besterik gabe, elkarrekin kantatzea du helburu.

Eskaera: Jesus, egunen batean bakean eta elkarrekin bizi ahal izatea eskatzen dizugu.

Ira 16 – 22 astea

Motibazioa

Ikasturteko bigarren aste honetan, konturatzen gara ikasturte berri batean gaudela, eta aurrean ditugula ikasketa berriak, irakasle berriak, ikaskide berriak. Elkar inspiratu behar dugu, une zailetan lagunduz eta garaipen uneetan ospatuz. Elkarrekin indartsuagoak gara eta gaitasun handiagoa dugu edozein erronkari aurre egiteko. Aurrera, gogo biziz eta ausardiarekin ikasturte berriari aurre egitera, hau baita "gure momentua" distirarazteko!

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

1. **Otoitza:** Ikasturtearen hasieran gauden honetan, elkarrekin, erronka bakoitza hazteko eta ikasteko aukera bihurtuko dugu. Gure Ama Onak inspira gaitzala egunari maitasunez eta batasunez aurre emateko, familia marista gisa batzen gaituzten loturak indartuz eta jakinduria bide bat eraikiz. Ikasturte berri honek aurki gaitzala elkartuta, indartsu eta ezezagunari aurre egiteko prest.
2. **Testua:** Gaur Marcelino gogoratuko dugu. La Valla herrira iristean, adeitsu eta maitekor agertzen zen beti, parrokiako bizilagunen konfiantza bereganatzen saiatuz. Alaia, argia eta irekia zen, eta itxura sinple eta onbera zuen. Kaleetatik igarotzean, norbaitekin topo egitean, beti izaten zuen konplimentuzko edo animoak emateko hitz atsegin bat. Hiztun atsegina, denekin jarduten zuen berrikeria; bazekien solaskidearen mailan jartzen, haren izaerara moldatzen, haren lekuan jartzen eta haren ikuspuntuak partekatzen. Marcelino, batez ere, auzokoen izaera, ezaugarriak, kalitateak, gabeziak, akatsak... sakonki ezagutzen saiatu zen. Ondoren, guztiei laguntzeko eta ongia egiteko jarduera plana prestatu zuen.

Eskaera: Jakin dezagula geuk ere Marcelino bezalakoak izaten eta, haren ereduari jarraiki, izan gaitzela biharko liderrak.

3. **Bideoa:** Laburmetraja "Garaitzearen balioa"

<https://www.youtube.com/watch?v=FGojE1jOL4I>

Eskaera: Jesus arren eskatzen dizugu gure ahaleginetan jarraitzeko behar den irmotasuna. Oztupo bakoitzetik ikasi eta balia dezagula gure helburuetarako bide sendoagoa eraikitzeko.



4. Abestia: "God so loved"

WetheKingdom <https://www.youtube.com/watch?v=jasoo3UDSwY> Jesusen maitasunean, maitasun garbi eta desinteresatua sentitzeko gonbidapena aurkituko dugu. Barkatzen eta sendatzen duen maitasuna da. Jesusen maitasuna izateak zera esan nahi du, gure inguruan daudenak maitatzea, zauritu gaituztenei barkatzea eta Haren irakaskuntzak, alegia, errukia, justizia eta ontasuna islatuko dituen asmo batekin bizitzea. Horregatik gaur are gehiago marista izatera gonbidatzen zaitugu, izan zaitez adiskidetasunaren eredu, lagun iezaiozu alboan daukazuari, erakutsi ekimena eta erantzukizuna... Eta ez ahaztu,... "Kontatu nirekin".

5. Dinamika: Lasaitasunezko une honetan, begiak itxi eta arnasa hartzera gonbidatzen zaitugu. Aurrean dugun eguna proiektatzean, aurkitzen ditugun pertsonak nola tratatu eta zaindu nahi ditudan pentsatzeko aukera sortzen da.

Baliteke norbaitek laguntza, jarrera ulerkorra edo sinpleki hitz maitekor bat behar izatea. Gaur ahalegindu gaitzek enpatikoagoak izaten eta behar dutenei laguntzen. Gure bizitzako pertsona garrantzitsuekiko estimua adierazteko jestu edo detaile bereziak ere pentsa ditzakegu. Adeitasun jestu txiki batek, bihotz emateko mezu batek edo, besterik gabe, arretaz entzuteak eragina izan dezakete norbaiten egunean. Azken batean, maitasun eta ardura jarrera lantzea da kontua, Marcelinok bere bizitzan egin zuen bezala.

Nola tratatu eta zaindu nahi ditugu gaur pertsona horiek? Norekin izan nahi dugu jestu edo detaile berezi bat egun honetan?

Kairoiren "Champagnat" abestia entzungo dugu: Champagnat, Kairoi.

Ira 23 – 29 astea

Motibazioa

Ikasturte berri honetako hirugarren aste honetan protagonista izan behar dugu. Egunero egin behar diogu aurre gogotsu eta prestutasunez. Begiratu zeure ingurura eta adi egon. Eman laguntza behar duenari; esan bihotza jasotzeko hitz batzuk triste dagoenari... Ausardiaz, eragin positiboa izan dezakegu, gure komunitatean, aldaketaren eragile bihurtuz.

Baliabideak



1. Otoitza: Gaur, Marcelino gure fundatzaile maristaren ez-augarri batzuk gogoratuko ditugu. Besteengan izugarri-zko eragina zeukan gizona izan zen eta bere nortasunaren arrastoa uzten zien. Konfiantzako pertsona zen, baina, aldi berean, aholkatu egiten zuen, eta

beti zegoen prest laguntzeko. Adeitasunez hurbiltzen zen besteengana.

Serioa zen eta, aldi berean, gozoa. Talde lanaren aldekoa zen; haren ustez ez zeukan zentzurik bakarka lan egiteak.

Eskaera: Horregatik, gaur eskatzen dizugu, Jauna, lagun diezaguzula gutako bakoitzak Marcelinoren bertuteren bat geureganatzen, horrela, pertsona gisa hazi ahal izan gaitzen.

Lagun iezaguzu eskolan erne eta adi egoten eta irakasleek azaltzen digutena ulertzen, hobeak izaten ikasteko.

Lagun iezaguzu adiskide onak izaten eta geure laguntza ematen behar duenari. Jesusen izenean, amen.

2. Bideoa: TALENTUEN PARABOLA

<https://www.youtube.com/watch?v=-ymAwhimOeY&t=12s>

Eskaera: Laguntza eskatzen dizugu zertan garen onak aurkitzeko eta horrela egunero hobetuz Joan ahal izateko. Gai izan gaitezela inguruan ditugunei laguntzeko. Zure maisunak gida gaitzala.

3. Bideoa Gogoeta: Materialismoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=qD-IJVQrLBk>

Eskaera: Lagun iezaguzu, Jesus, dauzkagun ondasun guztiak baloratzen, eta balora dit-zagula, halaber, geure ondoan dauzkagun pertsonak ere.

4. Oceans" Hillsong UNITED

<https://www.youtube.com/watch?v=OP-00EwLdiU>

5. Dinamika:

Kontuan hartuta aste honetan lidertza lortzeko eta geure komunitatean eragin positiboa izateko lanean ari garela, geure ikasgelako kideengan zentratuko gara. Irakasleak paperzati bana emango dizue eta bertan ikaskide taldeari egiten diozuen ekarpentxoak idatzi behar duzue. Adibidez: adi egotea inork laguntzarik behar duen ikusteko; norbait jolastokian bakarrik badago, hari konpainia egitea; neure iritzia ahoskera egokian azaltzea, etab.

Geroago, ikasgelako kide guztien aurrean azaldu dezakezu zeute konpromisoa edo, nahiago baduzu, zeuretzat gorde, baina berrikus dezakezun lekuren batean, bizirik mantentzeko.

2024 URRIA

10. URRIA: EZ DUGU AMORE EMANGO

Hileko motibazioa

Lehen zailtasunek sortzen dituzte lehen zalantzak ere. Haurtzaroak eta gaztaroak zerbait badute, da beldurrak beste era batera ikusten direla. Edo, beste gabe, ez direla ikusten. Horregatik, amore ematea ez da sartzen gazteen planetan. Bugobeko anaiak amaierara arte beren misioaren alde borrokatu ziren bezala, haien ereduari jarraitu behar diogu, zerbait ezin lortu dugula dirudienean amore ez emateko. Amore ez ematea nortaz fidatzen garen jakitea da.

Urr 07 – 13 astea

Motibazioa

Une zailetan eta erronketan gogoan daukagu ausartak garela norbait geure alde daukagutako: lagun bat, familia bat edo Jesus bera. Hura da gure indarra, gure bidea argitzen duen zuzia eta inoiz ere bakarrik uzten ez gaituena. Gauzak korapilatzen badira ere, sinets dezakegu Jesusekin dena posible dela. Haren maitasunak indarra eman diezagula iraunkor izateko, egunero ikasteko eta hazteko.

Baliabideak:

1. Dinamika-Otoitza:

Post-it batean bizitzan ditugun zailtasunak idatziko ditugu, ahalegin bat eskatzen digun guztia, triste egotera eramaten gaituena.

Arbelera irtengo gara banaka eta han "Nire zailtasunak" izenburuarekin esekita dagoen kartoi mehe batean erantsiko du bakoitzak bere post-ita eta, nahi izanez gero, gainerako ikaskideen aurrean komenta dezake.

Amaitzeko, denon artean otoitz hau errezatuko dugu:

*"Jesus, hemen aurkezten dizkizugu kostatzen zaizkigun gauzak
zoriontsu izatea eragozten digutenak
eta indarra eta ausardia eskatzen dizkizugu
edozein oztopori aurre egiteko,
jakinik zurekin kontatzen dugula.*

*Zure argiak gure bidea argi dezala
Eta gida ditzala gure pauso guztiak.*

*Lagun iezaguzu ahalegintzen
Gogoratuz zure laguntzarekin,
edozein zailtasun gaingaituko dugula.*

2. Bideoa Gogoeta: motibazioa eta gogoeta.

<https://www.youtube.com/watch?v=x7w9EXplmVY>

Izan al duzu inoiz ezinezkoa zirudien ametsik?

Zer egin duzu haiek errealitate bihurtzeko?

Eskatu al duzu laguntzarik?

3. Otoitza:

*Jesus, guk, umeok
mundu hobe batekin egiten dugu amets.*

Batzuetan ezinezko iruditzen zaigu bakea iristea,
inor goseak ez hiltzea,
mundu guztia zoriontsu izatea...

Indarra eskatzen dizugu, Jauna, bakea eramaten saiatzeko,
geure familiara, geure lagun eta ikaskideengana, kirolera...

Ez dugu sorgor izan nahi munduan
gosea sufritzen duten pertsonen aurrean.

Zoriontsu egin nahi ditugu inguruan ditugunak.

Lagun iezaguzu, Jesus, gure nahiak betetzen.

4. Dinamika:

Idatzi gutun labur batean zure kezkak eta nahiak eta horiek lortzeko dituzun arazoak, eta eskatu Jesusi nahi duzuna lortzen laguntzeko. Eskatu indarra emateko eta beldurrak gainditzeko.

Denok batera errezatuko dugu Aitagurea, zazpi eskaera dituen otoitza, "Libra gaitzazu gaitzetik" esaten denera arte.

Ira 14 – 20 astea

Motibazioa

Eskerrak ematen ditugu geure eguneroko ibilbidean amore ez emateko jasotzen dugun indarragatik, Eskerrak eman behar ditugu gauza onengatik eta hain onak ez direnengatik ere bai, horiek sendoago bihurtzen gaituztelako. Zoriontsu egiten gaituzten gauza eta pertsona asko dauzkagu, geure bidean laguntzen diguten pertsona asko, eta Jesus ere hor daukagu, inoiz huts egiten ez diguna eta gauzak ondo ez doazenean indarra ematen diguna. Egutero atera behar du gugandik "eskerrik asko" hitzak. Ez itxaron zerbait edo norbait falta zaigun arte, zer geneukan eta zenbat axola zitzaigun konturatzeko. Bizitzan garrantzitsua da eskerroneko izatea.

Baliabideak:

1. Dinamika:

Gaur, paper zerrenda bana utziko diegu ikasgelako kide guztiei, eta eskertzen duten zerbait idazteko eskatuko diegu. Zerrenda guztiekin kate bat osatu eta arbelean jarriko dugu.

Denok batera otoitz egingo dugu:

Eskerrik asko Jesusi, beti gure ondoan egoteagatik, inoiz abandonatzen ez gaituen lagun leiala izateagatik, bizitzako zailtasunen aurrean amore ez ematen erakusteagatik...
(Pertsona bakoitzak eskerronez dagoen zerbait gehituko du).

2. Abestia: "La aventura de vivir" (Manu Carrasco)

<https://www.youtube.com/watch?v=eQJrIAtCoGA>

Momentu onetan eta txarretan norbait ondoan edukitzeak duen garrantzia komentatuko dugu. "Lagun bat altxorra da"

3. Abestia: "Color esperanza"(Itxaropen kolorea)

<https://www.youtube.com/watch?v=abPk8SFK374>

Partekatze galderak: Zer kolorez pintatuko zenukete alaitasuna, maitasuna, itxaropena...?

Zer esan nahi du zure ustez adierazpen honek: "etorkizunean bihotzarekin sartzea?"

4. Otoitza:

Jesus maitea,

Gaur, eskerrak ematen dizkizugu gure familiagatik, lagunengatik eta daukagun guztiagatik. zaintzen gaituzulako eta beti gure ondoan zaudelako.

Eskerrik asko oparitu diguzun egun berri honengatik. Eskerrik asko barre bakoitzagatik eta besarkada bakoitzagatik.

Eskerrik asko gure laguna zarelako eta beti maite gaituzulako. Eskerrik asko inguruan ditugun guztiak maitatzen erakusteagatik, ordainez ezer eskatu gabe.

Lagun iezaguzu eskertzen eta zure maitasuna besteekin partekatzen.

5. Testua: batzen gaituenari eta aldentzen gaituenari buruz gogoeta egiteko:

Behin batean, Anai Lorenzo Aita Champagnatekin hizketan ari zen. Esan zion anaidi batean oso onak zirela denak, baina ez zirela ondoegi konpontzen elkarren artean.

Marcelinok azaldu zion lagun eta adiskide onak izateko, beharrezkoak direla askotan ahazten ditugun bertute batzuk. Eta adibide batzuk jarri zizkion: barkatzea, ulertzea, atseginak eta alaiak izatea, dialogatzen jakitea, laguntzea, errespetatzea, atseginak izatea, pazientzia edukitzea, besteenganako interesa edukitzea...

Zer kalitate dituzu zuk?

Esan lankideren bati zer kalitate dauzkan.

6. Otoitza:

Jesus,
neure familia osoagatik eskatu nahi dizut gaur:
aita, ama, senideak, aiton amonak...

Emaiezu denei osasun ona
eta beti zorientsu izan daitezela.

Beti geurekin eduki nahi zaitugu
eta oso elkarturik bizi gaitzezela
zure maitasun handia gure artean
areagotuz,
egunero, uneoro.
Amen.

Ira 21 – 27 astea**Motibazioa**

Geure barnera sartu gara gure bizitzari buruz hausnarketa egiteko eta zenbat gauza garrantzitsu egin ditugun ikusteko. Zerrenda oso laburra izan daiteke, baina ingurukoei galdetzen badiezu zer gogoratzen duten zutaz, konturatuko zara jestu bat, detaile bat, agian garrantzitsua izan dela eta modu batera edo bestera sentiarazi dituela. Misiolariak ahulenei laguntzen diete bizitzako bidegabekeriazko egoeretan. Gu ere misiolariak gara, eta gure eginkizuna une bakoitzean inguratzen gaituzten pertsonak zorientsu egitea da.

Baliabideak:**1. Dinamika:**

Ikasgelako bakoitzak dekalogoko "agindu solidario" bat pentsatuko du. Ozenki komentatuko dugu, klaseko konpromiso gisa edukitzeko astebete zehar. Adibidez:

Adibidez: Partekatu behar duenarekin. Partekatu zeure denbora, nekatuta bazaude ere....

2. Evangelio: Markos (9,30-35):

Aldi hartan, Jesus eta bere dizipuluak menditik jaitsi eta Galilea zeharkatu zuten; (...) Kafarnaumera iritsi ziren. Eta, etxean, Jesussek galdera hau egin zien:

-Zer eztabaida izan duzue bidean? Baina haiek hitzik ez; beren artean handiena nor ote zen eztabaidatu baitzuten bidean.

Eseri zen Jesus eta, Hamabiei dei eginik, esan zien:

-Lehena izan nahi duena izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria..»

Askotan entzun dugu Jesussek esandakoa, baina gauza bera al da gure gizarteak esaten duena?

Zer esan nahi du guretzat zerbitzari izateak?

3. Testua: Gogoeta pertsonala:

<https://www.youtube.com/watch?v=YpTL6oreg8Q>

Inguruan dugun jendeak agian ez du gogoratuko zer egin edo esan genuen zehazki, baina gogoratuko dute nola sentiarazi genituen horrekin.

Saia gaitezen dena ilusioz egiten, baita gauzarik txikienak ere, benetan horiexek baitira gehien kontatzen dutenak.

Eskuzabaltasunez "oparitutako" momentuak, ezezagunei, beharrean zeudenei, lagunei, familiartekoei, ikaskideei... oparitu dizkiegunak, horiexek dira benetan ongien sentiaraziko gaituztenak.

4.- Abestia: "Somos misioneros":

<https://www.youtube.com/watch?v=bbT7DEwLep0&t=16s>

5. Otoitza:

*Jesus, ez duzu eskurik.
Gure eskuak baino ez duzu
justizia nagusi izango den
mundu bat eraikitzeko.*

*Jesus, ez duzu oinik.
Gure oinak baino ez duzu
askatasuna eta maitasuna
martxan jartzeko.*

*Jesus, ez duzu ezpainik.
Gure ezpainak baino ez duzu
munduan, berri ona iragartzeko.*

*Jesus, ez duzu baliabiderik.
Gure ekintza baino ez duzu
gizon eta emakume guztiok
senide izatea lortzeko.*

*Jesus, gu gara zure Ebanjelioa,
jendeak irakur dezakeen Ebanjelio bakarra,
gure bizitzak ekintza eta hitz eraginkorrak badira.*

*Jesus, gure bizitza eskaintzen dizugu,
gure desioak, ahaleginak eta energiak
zuk zeure erara eraginkor egin ditzazun.*

Urr 28 – aza 1 astea

Motibazioa

Aste honetan, Bugoben, Zairen, besteenganako maitasunagatik bizia eman zuten anaia maristak gogoratuko ditugu. "Azkeneraino maite izan zuten". Dena partekatu zuten eta beren burua oparitu zuten, Jesusen Ebanjelioari jarraiki, behartsuenen alde. Maitasunez gogoratzen ditugu, eta gure egoismoetatik haratago ikusten laguntzen digute eredu gisa.

Baliabideak:

1. Ebanjelioko testua: "Maitasunaren agindua" (San Joan 15, 12-13)

Hauxe da nire agindua: maite dezazuela elkar, nik maite izan zaituztedan bezala. Inork ez du maitasun handiagorik lagunen alde bizia ematen duenak baino.

Gogoeta: Nola bete dezaket Jesusen agindua nire eguneroko bizitzan? Zer esan nahi dezake guretzat bizia ematea? Daukagun baliotsuena ematea da...

Horretarako geure egoismoak gainditu behar ditugu, eta besteen alde gauzak egin, zail gertatzen bazaigu ere... Adibideak jarriko ditugu denon artean.

2. Otoitza: Partekatzea.

*Ze hitz ederra,
ordainez ezer itxaron gabe ematen denean;
behar duenagandik hurbil gaudenean;
norberarena denena denean;
"gureak" "nireak" baino gehiago balio duenean!*

*Jesus maitea,
irakatsiezaguzu dena partekatzen;
egizu gure bizitza ematea izan dadila,
horixe baita maitatzeko era bakarra.*

Ozenki adieraziko dugu zer parteka dezakegun, ahaztu gabe badirela dirurik kostatzen ez zaigun gauzak eta oso baliotsuak direnak inguruan ditugunontzat. (irribarreak, denbora...)

3. Abestia: "Puedes cambiar el mundo" (Mundua alda dezakezu) Alejandro Lerner

<https://www.youtube.com/watch?v=wchs-eiQ2TE>

4. Testua: Marcelinoren ohea

Parrokiako gaixoei egindako bisita batean, Marcelinok agure gaixo bat aurkitu zuen bere etxean lurrean etzanda, hain behartsua zenez ez baitzeukan oherik ere. Marcelino anaiekin etxera itzuli zenean, ohe bat ekartzeko eskatu zien anaiei, gizon behartsu hari eramateko.

– Ez dago ohe librerik –erantzun zioten.

Bi aldiz pentsatu gabe, bere ohea hartu eta agure hari eramateko eskatu zuen.

Gogoeta: Marcelinok bezala jokatu al zenukeen zuk?

Pentsa ezazu zeure inguruko norbaitekin parteka dezakezun zerbait.

5. Testua reflexión: "Dohaintza" Duela urte asko, ospitale batean boluntario gisa lan egiten nuenean, gaixotasun arraro bat zuen neskato bat ezagutu nuen. Sendatzeko zeukan aukera bakarra, antza, bere bost urteko nebaren odol transfusioa zen, hark ere gaixotasun berbera jasan zuelarik, gaitzari aurre egiteko antigorputzak garatu baitzituen.

Medikuak egoera azaldu zion mutikoari eta ea arrebari odola emateko prest zegoen galdetu zion.

Mutikoak une batez zalantzan egon ondoren, hasperen egin eta erabaki zuen:

–Bai, emango diot neure odola, horrek nire arreba salbatzen badu.

Transfusioa egiten ari ziren bitartean mutikoa arrebaren ondoan zetzan beste ohe batean. Irribarretsu zegoen medikua beraz ere arduratzen zelako eta pixkanaka arrebaren masailertara koloreak itzultzen ari zirela ikusi zuen.

Orduan, mutikoaren aurpegia zuri-zuri jarri zen eta irribarrea desagertu egin zitzaion.

Medikuari begiratu zion, eta ahots dardaratiz galdetu zion: –Zure ustez, noiz hasiko naiz hiltzen?

Haurrak ez zion medikuari ondo ulertu eta uste zuen bere odol guztia eman behar ziola arrebari, baina hala eta guztiz ere prest zegoen

Entzun duguna komentatuko dugu: Zer iruditzen zaigu nebaren jarrera? Gai izango ginateke horrelako zerbait egiteko? Norengatik egingo genuke?

Eskerrak ematen ditugu besteen alde bizia ematen duten pertsonengatik, horrela beren bizia galtzeko arriskuan jartzen badute ere.

6. Testua: Bugobeko anaien mezu batzuen laburpenak.

Urriaren 31n, Servando, Julio, Fernando eta Miguel Ángel anaiak Zaireko errefuxiatu eremu batean asasinatuak izan zirela gogoratuko dugu.

Servandoren testigantza

Errefuxiatu eremu honetan milaka haur daude oinutsik, erdi biluzik. Guretzat ia imajina ezina da ikuskizun hau. Asko dira ikusten ditugun gauzak, eta geure barnean gordetzen ditugunak. Asko dira geure barnean sortzen zaizkigun galderak, eta galdera horientzat ez dugu aurkitzen erantzunik, baina egia da anaia marista baten presentzia itxaropen izpi bat dela berauen bizitzan.

Julio anaiak hau idatzi zuen:

“Oso ondo nago. Ilusioz beterik lan egiten jende honekin. Niri egokitu zait hauekin bizitzeko zoria, berauekin egunero Jainkoaren presentzia aurkituz”.

Zerk bultzatu zituen anaia hauek beren bizia besteen alde ematera?

Merezi izan al zuen hain prezio garestia ordaintzeak?

2024 AZAROA

11. AZAROA: GEURE ETORKIZUNA ERAIKITZEN

Hileko motibazioa

Parte hartzeko eskubideak eskatzen digu haurrak edo nerabeak bere iritzia osatzeko moduan egon behar duela bermatzea, bai eta eragiten dieten egoerei buruzko iritzia askatasunez adierazteko eskubidea ere, haurraren iritzia kontuan hartuta, berauen adinaren eta heldutasunaren arabera. Parte hartzeko eskubideak berekin dakar gazteek beren etorkizuna eraikitzeko hitza eta botoa izateko duten eskubidea.

Aza 04 – 10 astea

Motibazioa

Aste honetan, gure familian daukagun portaera aztertuko dugu eta Jesus haurrak bere gurasoekin Nazareten bizi zenean zeukan portaerarekin alderatuko dugu, hau da zertan da haren berdina era zertan desberdina? Norantz bideratzen ditugu geure ekintzak etxean?

Baliabideak

1. Dinamika

Dinamika txiki bat egingo dugu geure burua hobekixeago ezagutzeko eta geure familian daukagun portaera aztertzeko. Ikasle bakoitzari orri laurden bat emango zaio eta bertan 10etik 10era zenbakiak idatziko dituzte denek. Irakaslearengandik hasita, geure familiaren hamar ezaugarri aipatuko ditugu eta nor den bertan gehien nabarmentzen den kidea.

Zure familian...

1. Nor da aiton amonei gehien deitzen diena?
2. Nork jasotzen du mahaia gehiagotan?
3. Nork proposatzen du gehiagotan zerbait denon artean egitea?
4. Nor da gehien protestatzen duena?
5. Nor da musu gehien ematen dituen (era interes gabea)?
6. Nor da besteei gauza polit gehien esaten dizkiena?
7. Nor da errazen haserretzen dena?
8. Nor da etxeko lanetan gehien parte hartzen duena?
9. Nor da eskerrik asko gehiagotan esaten duena?
10. Nor da besteekin detaile gehien izaten dituen?

Galdeketa ondoan, talde hausnarketa bat egingo dugu, eman ditugun erantzunen zergatia azalduz. Erantzun positiboetan geure izena bada gehien agertzen dena, ozenki esango dugu zer den ongi egiten ari garena.

Negatiboetan nabarmentzen bagara, nola hobetu aztertu beharko dugu. Amaitzeko, denok batera eskerrak emango ditugu, gutako bakoitzak etxean egiten ditugun gauza on guztiengatik.

2. Otoitza:

Egun on, Maria. Ni bezalako haur baten ama izan zinen horri, laguntza eskatzen dizut. Haren antz handiagoa izan dezadan.

Zaindu nazazu zeure maitasunaz, Jesus zaindu zenuen bezala. Bete nazazu maitasunez, familiarekin partekatuzko, zuk zeure semearekin egin zenuen bezala. Jakin dezadala

erakusten zenbateraino maite ditudan eta axola zaizkidan aiton amonak, gurasoak, senideak...

"Orain ez dut nahi" esan orde, esan dezadala "Bai, nola ez ba!" senideek jolaserako deitzen didatenean edo aiton amonak nirekin egon nahi dutenean.

Emadazu pazientzia zerbait ongi irteten ez zaidanean, eta gogoia nirekin bizi direnak eta egunero beren maitasuna oparitzen didatenak zoriontsu izan daitezen ahaleginak egiten jarraitzeko.

Eduki dezadala beti irribarre bat beraientzat.

3. Abestia: "La familia Madrigal"

https://www.youtube.com/watch?v=JWe_smmkgrw&ab_channel=DisneyMusicLAVEVO

Familia berezi honetan bakoitzak betetzen duen rolaz hitz egingo dugu. Zer gertatuko litzateke kideren bat faltako balitz? Eskerrak emango dizkiogu Mariari gure familiako kide guztiengatik.

4. Bideoa:

https://www.youtube.com/watch?v=G_eBfLMfVDO&ab_channel=Dulcineainthewoods

Zuek sentitu al duzue inoiz guraso horiek kontatzen duten ezer? Komentatu al duzue eurekin nola sentiarazten zaituzten?

Garrantzitsua da gure familiak jakitea noiz garen zoriontsu haiekin eta noiz egiten duten gustuko ez dugun zerbait. Eta garrantzitsua da, era berean, guk ENTZUTEA haiei gustatzen ez zaien zerbait egiten dugunean.

Zuri eskaintzen dizugu, Jesus, gure familiako kideek dituzten premiez ohartzeak guretzat suposatzen duen nekea.

Aza 11 – 17 astea

Motibazioa:

Joan den astean ikusi genuen nola erlazionatzen garen gure familiarekin eta zer eginkizun hartzen ditugun etxean.

Baina bada beste leku bat egunean denbora asko ematen duguna, eta hor ere IZATEN DITUGU barreak, negarrak, haserreak... Badakigu ikastetxean ere familia bat osatzen dugula; horregatik, egun hauetan gure jarrerari eta ekintzei buruz hausnartuko dugu

Baliabideak:

1. Otoitza:

*Nos vemos todos los días,
Egunero ikusten dugu elkar,
astean bost egun.*

*Ordu asko ematen ditugu elkarrekin:
ikasgelan, aisialdian,
era guztietako jardueretan.*

Batzuk adiskideago dira, beste batzuk ez hainbeste.

Baina gaur denak ditut gogoan.

*Eskerrik asko, Jesus, lagun guztiengatik,
denengandik ikasten dudalako zerbait egunero.*

Arren eskatzen dizut geure artean arazoak ditugunean,
ebatzi ditzagula borondate onarekin,
inorekin haserretu gabe.

Eta era berean eskatzen dizut
irakats diezaguzula gutako bakoitzari
zu bizi izan zinen bezala bizitzen,
zuga sinesten eta zu benetan maitatzen.

2. Testua: Samariar onaren parabola.

<https://www3.gobiernodecanarias.org/medusa/edublog/ceiparganaalta/wp-content/uploads/sites/87/2020/05/el-buen-samaritano-power.pdf>

Zergatik lagundu zion samariarrak inolako traturik ez zeukan pertsona bati?

Zer pentsatu ote zuten besteez? Axola izan zion horrek samariarrari?

Jesusek irakasten digu lagun hurkoarekin onak izan behar dugula. Eta oso erraza da lagun hurkoarekin ona izatea, bera adiskidea dugunean eta elkarrekin ondo konpontzen garenean.

Baina samariarra bezalakoak izan behar dugu, norbait une txarra pasatzen ari dela ikusten badugu, lagundu egin behar diogu, gure azaleko desberdintasunak kontuan hartu gabe.

3. Dinamika:

Zer ekarpen egin dezaket nik?

Gutako bakoitzak post-it batean idatziko du ondo egiten zaion zerbait (izan daiteke materiala edo ez; adibidez, niri asko gustatzen zait jendeari entzutea, niri asko gustatzen zait marrazkiak egitea...)

Guztion artean pentsatuko dugu nola transforma dezakegun trebezia hori besteentzat baliagarri gerta dadin. Adibidez: nik ondo marrazten dudanez, marrazki bat egin dezaket egun txarra izan duen norbaitentzat.

Eskerrik asko, Maria, ditudan abilitade guztiengatik.

4. Bideoa: "Denok berdina gara."

https://www.youtube.com/watch?v=U4IczVASMPo&ab_channel=RexNamita

Norbait sufritzen badago, zer egin dezaket nik? Nola konbentzituko dut neure inguruko jendea pertsona horri lagun diezaion?

Jesus, lagun iezadazu ikusten zerbait txarra gertatzen zaidanean aurkezten zaizkidan hobetzeko aukerak.

5. Abestia: "Un mensaje al mundo." "Mezu bat munduarentzat"

https://www.youtube.com/watch?v=XgWSCs6CZ5Y&ab_channel=UnMensajealMundo

Abestia munduaz mintzo da, baina guk aplika dezakegu geure eskolan, geure eguneroko bizitzan. Ados gaude abestiaren mezuarekin?

Aza 18 – 24 astea (Haurren eskubideen astea)

Motibazioa:

Azken bi asteotan ikusi dugu zer betebeharrak ditugun: seme-alaba gisa, iloba, lehengusu gisa, lagun, lankide gisa...

Aste honetan gogorarazi nahi dizuegu eskubideak ere baditugula. Badira gauza batzuk munduko haur guztiek eduki behar lituzketenak, eta horietako baten alde saiatu zen batez ere Marcelino Champagnat, gure fundatzailea: haurren HEZKUNTZARAKO eskubidea.

Baliabideak:

1. **Testua:** Jesusek haurren garrantzia defendatu zueneko zazpi momentu:

<https://compassion.es/noticias/7-veces-jesus-defiende-ninos-biblia/>

2. **Otoitza:**

Ene jainkoa eta ene babes! Jesusen izenean, eskatzen dizut bizi ahal izan dezadala zuk nahi duzun bezalako haurtzaroa, eta hazi nadila balio kristauekin. Nire haurtzaroan ohikoa izan dadila Jainkoaren etxea bisitatzea eta zure presentziaz eta nire sineste berbera duten haurrez inguratua egotea, haiekin batera zuri abestu, eskuak jaso eta adoratu ahal izan zaitzadan. Jauna, halako haurtzaro bat non neure familiarekin batera zure hitza entzun ahal izan dezadan, eman dizkidazun talentuekin zu eta lagun hurkoa zerbitzatzeko.

Jesusen izenean, Amen.

3. **Dinamika:**

Egokia ala desagokia deritzot? Esaldi bakoitza egokia ala desagokia iruditzen zaigun pentsatuko dugu.

Gero, taldeka, eman dugun erantzuna arrazoituko dugu.

- Beharrezko da ikasgela bat egotea ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzat bakarrik, horrela ez dute gainerakoen aurrerabidea oztopatuko.
- Hobe da isilik geratzea jendaurrean hanka sartzerik ez egiteko.
- Mutiko eta neskato guztiek tratatu berbera merezi dute.
- Behartsuak aberatsak baino hobeto tratatu behar dira.
- Eskubide orok berekin dakar betebeharrak.

Galdera honekin amaituko dugu: Zer egingo zenuke zuk kristau bezala?

4. **Bideoa:** "Eskerrik asko." UNICEF

https://www.youtube.com/watch?v=TNB6QFRuvTw&ab_channel=UNICEFEspa%C3%B1a

Zer iruditu zaigu bideoa? Zein ideia iruditu zaigu garrantzitsuenak?

5. **Abestia:** "Derechos de los niños." (Haurren eskubideak) UNICEF

https://www.youtube.com/watch?v=kSD_Vs6TaG0&ab_channel=Distroller

Gainerakoak baino garrantzitsuagoa den eskubideren bat badagoela uste duten komentatuko dugu.

Aza 25 – abe 1 astea**Motibazioa:**

Haurren eskubideei eskaini diegun hilabete honi amaiera emateko, Jesusen eta Mariaren arteko harremanean zentratuko gara. Haiek ezagutzeko eta haien berri jakiteko, eta horrela haien eta Marcelinoren pausoei jarraitzen saiatzeko.

Baliabideak:

1. **Dinamika:**

Zer dakigu Jesusi buruz? Zer dakigu Mariari buruz? Zer dakigu Marcelinori buruz? Gutako bakoitzak, irakasleak barne, aste honetan hiruretako baten bizitzako alderdi bat imitatzeko konpromisoa idatziz azalduko dugu.

Adibidez: Maria beti zegoen semearen arduraz. Aste honetan ni ere neure familiaren arduraz egongo naiz, eta hitz ematen dut ez naizela huskeriengatik haserretuko neure senideekin pozago egon daitezen.

2. Testua:

1823ko otsaila zen. Bourg-Argental anaidiko kide bat oso gaixorik zegoen, eta Marcelinok ez zuen semea hiltzen utzi nahi bere bedeinkazioa eman eta kontsolatzeko hitz batzuk esan gabe.

Eguraldi txarra zegoen eta dena elurtua, baina horrek ez zion eragotzi bidaia oinez egitea eta gaixoaren ohera hurbiltzea, hura hilzorian zegoela jakin zuen bezain laster. Hari bedeinkazioa eman eta kontsolatzeko hitz batzuk esan ondoren La Vallara itzultzea erabaki zuen, bertan gera zedin konbentzitzeko eginahalak egin zituzten arren, gau hartan ari zuen elur ekaitz gordinagatik.

Itzuleran, anai Estanislao lagun zuela, Pila mendiak zeharkatu behar izan zituen. Pare bat ordu ibili ondoren, galdu egin ziren. Bidearen arrastorik ere aurkitu ezinik, noraezean zebiltzan. Haize baldar batek aurpegian ematen zien, eta ezin zuten ikusi norantz zihoazen, ez zekiten aurrerantz ala atzerantz egiten zuten. Ordu batzuk horrela ibili ondoren, anai Estanislao hain zegoen ahituta, ze Aita Champagnatek besotik heldu behar izan baitzion gidatzeko eta erori ez zedin.

Baina laster berak ere, leher eginda, gelditu egin behar izan zuen. Anaiarengana zuzenduz, honela esan zion: "Adiskide maitea, Amabirjina Txit Santuak laguntzen ez badigu, gureak egin du. Jo dezagun berarengana eta eska diezaiozun atera gaitzala elurrez beteriko baso honetan aurkitzen garen bizia galtzeko arriskutik." Hitz horiek esatean, sentitu zuen nola Estanislao anaia, zutik mantentzeko indarrik gabe, lurrera erortzen zen. Konfiantzaz beterik, anaiaren ondoan belaunikatu eta sutsuki errezatu zuen "Oroit zaitez". Gero anaia zutiarazten saiatu zen, ibiltzen jarrai zezan. Hamar pauso ere ez zituzten emanak, zeuden lekutik hurbil argi bat ikusi zutenean, jadanik gaua baitzen. Hara zuzendu ziren eta etxe batera heldu ziren. Han igaro zuten gaua. Biak zeuden hotzak akabatzen eta, anaiak batez ere, denbora behar izan zuen bere onera etortzeko.

Aita Champagnatek behin baino gehiagotan aitortu zuen, une hartantxe laguntza iritsi ez balitzaie, bertan hilko zirela biak, Amabirjina Txit Santuak salbatu zituela heriotzatik.

Egin dezagun gogoeta pasadizo honen gainean. Inoiz sentitu al gara honela, Mariaren babespean?

Elkarrekin errezatuko dugu:

*Oroit zaitez,
Birjina Maria txit errukior hori,
inoiz ez dela entzun
laguntza este, zure babesa erregutuz
zugana hurbildu den inori
zuk entzungor egin diozunik.
Konfiantza horrek animaturik,
zugana nator,
ene Ama,
birjinen birjina.*

*Eta neure bekatuen
zamapean banator ere
zure presentzia subiranoaren aurrean
agertzera ausartzen naiz.*

*Ez egin entzungor nire erregu apalei,
Jainkoaren Ama zaren horrek,
baizik entzun eta jaso itzazu errukiz .*

Amen.

3. Otoitza:

Jesus, eskerrik asko
lurrera negatik bizitzera eta hiltzea etorri
Erakutsi didazu maitasunagatik.
Egun hau zurekin ospatu nahi dut.
Ezagutu nahi zaitut, zure maitasuna
hartu nahi dut eta betiereko bizitzarako
egiten didazu oparia.
Arren, uki ieza dazazu bizitza
niri eskaintzeko daukazu maitasun horrekin
eta lagundu maitasun hori besteekin partekatzen.

4. Bideoa:

https://www.youtube.com/watch?v=3RnIfviDvE&ab_channel=GeorgeKamos

Eta guk? Zer egingo genuke Jesusekin aurrez aurre bageunde? Zer esango genioke?

2024 ABENDUA

12.- ABENDUA: PREST ZURI HARRERA EGITEKO (ABENDUA / EGUBERRI)

Hileko motibazioa:

Abendua, itxaroteko eta prest egoteko aldia. Haur baten etorrera ez da inprobisatzen den gauza, eta are gehiago Haur horrek argi eta ozenki esaten badigu: "Kontatu nirekin". Geure etxean eta geure bizitzan lekua egin behar diogu. Pozari gutaz jabe dadin utzi behar diogu eta poza hori ingurukoei kutsatu behar diegu. Eta prest egon behar dugu, Berri Ona iristen denean, jaio berriari ongietorria egitera joateko. Marcelinok eskatu zigun bezala Haurtxoari ongietorria egiten lehenak izan nahi dugu.

Abendua 2 – 8 astea

Motibazioa

Abenduko lehen aste honetan, gure bihotzak aurreratze eta itxaropenean murgilduko ditugu, eta Jesusen etorrerari buruz gogoeta egitera gonbidatuko gaitu, gure espirituak argia jasotzeko prestatuz. Kandela irazekiak bezala, egun bakoitzak helmugaranzko pauso bat markatzen du. Aste honek inspira gaitzala atseginez bizitzeko eta gure bihotzetan lekua uzteko, Jesusek eskaintzen digun maitasunerako eta bakerako.

Baliabideak:

1.Otoitza: "Lau Kandelak"

https://www.youtube.com/watch?v=-h_Ms940p78

2. Testua: ABENDUKO KOROA

Abendua gure bihotzak eta buruak Eguberrirako, hau da, Jesusen jaiotzeko urtebetetzea ospatzeko prestatzeko. denbora da. Abendua ospatzeko, Abenduko koroa bat jartzen da eta astero kandela bat piztuz joaten gara. Antzinako tradizio katolikoa da abenduan koroa eta kandelak erabiltzea; Erdi Aroan hartu zuten kristauek, Eguberri-tako prestakuntza espiritualaren parte gisa.

Koroa, berez, hosto iraunkorreko zenbait zuhaitzez egina izan daiteke, eta bizitza jarraitua esan nahi du. Zirkulua irudi geometriko perfektua da, hau da, ez du ez hasierarik ez amaierarik. Era berean, koroak forma zirkularra du (hasierarik eta amaierarik gabea). Kandelak ere esanahi berezia dute. Lau kandelak abenduko lau asteak irudikatzen dituzte, eta igande bakoitzean kandela horietako bat pizten da. Kandelak kolore jakin batekoak izatea derrigorrezkoa ez den arren, ohikoa da Abenduko Koroak hiru kandela more eta bat arrosa izatea, Otoitzaren denbora sinbolizatzen dutenak. Gabonetako afarian, bildutako familiak zuzia piztu eta Koroaren erdian jartzen du. Zuziaren argiak gogorarazten digu Kristo munduaren argia dela.



(KANDELEK adierazten digute iluntasuna eta lausoa barreiatzen dituela argiak.

3 KANDELA more edo zurik gogorarazten digute Abendua otoitz denbora dela.

KANDELA ARROSA Abenduko hirugarren igandean pizten da. Jesusen jaiotzak dakarkigun poza adierazten du.

Koloretako kandela bakoitza Abenduko aste bakoitzari dagokio.

ZUZIA EDO KANDELA ZURIA Gabon gaueko afarian piztu eta koroaren erdian jartzen da.

KOROA BIRIBILA DA, ez du ez hasierarik ez amaieratik, Jainkoaren betierekotasuna adierazten du.

HOSTO BERDEAK izan daitezke izeia edo gorostiarenak edo artifizialak. Kolore berdeak itxaropena irudikatzen du.)

3. Bideoa: "El Adviento Llegó." Unai Quirós

<https://www.youtube.com/watch?v=bCESJ4JPJ44>

4. Abestia: "Hallelujah." Pentatonix

<https://www.youtube.com/watch?v=LRP8d7hhpoQ>

5. Dinamika: ALFONBRA GORRIA

Talde kohesiorako jarduera bat proposatzen dizuegu. Lurrean alfonbra gorri bat simulatuko dugu, eta taldea alfonbraren alde banatan kokatuko da. Ikasle bakoitzak, begiak es-talita, alfonbra zeharkatuko du, gainerakoek belarrira gauza positiboak esaten dizkioten bitartean. Komeni da adjektibo/jarrera positiboen zerrenda bat egitea.

Adibidea: eskuzabala, burutsua, begirunetsua, zintzoa, enpatikoa...

Abe 9 – 15 astea

Motibazioa

Abenduko bigarren aste honetan Jesusen etorrera prestatzen jarraituko dugu. Maitasuna eta elkartasuna intentsitate handiagoz bizi ditzagula.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

1.Otoitza:

Jauna, gure artean gera zaitezen nahi dut,
leku bat egin nahi dizut neure bizitzan
zure ama Mariak egin zuen bezala,
era berean gure ama, eredu,
irakasle eta gidari den hark.

Jauna, gure artean gera zaitezen nahi dut.

Zuretzat leku bat prestatzen ahalegindu nahi dut,
bertan eroso senti zaitezen,
elkar maite dugulako eta
adiskidetsu bizi garelako.

Jauna, gure artean gera zaitezen nahi dut.

Belenen artzainek egin zuten bezala;
Lasterka hurbildu baitziren,
beren opariak eta irribarrea eskaintzera.

2. Testua:

Ziklo liturgiko honetan jarraitzen dugu, are gehiago barneratzen gara abenduan. Bigarren aste honetan, prest gaude ongietorria egiteko Jesusi, gure bizitza eta bihotzetan berpizterera datorrena. Gabonetako loteriarren, turroien eta jostailuen iragarkiak hasi badira ere, gure ardura nagusia Gabonetako oparirik esanguratsuena aurkitzea da. Leku bat egin behar diogu geure etxean. Alaitasun denbora honetako protagonistak izan behar dugu, eta ingurukoekin partekatu. Prest egon behar dugu, berri ona jasotzean, etorri berriari ongietorria egiteko.

3. Bideoa: "Abendua." Haurrentzako ipuina.

<https://www.youtube.com/watch?v=UBwZnDjdHOk>

4. Abestia: "Del cielo." (Zerutik)

<https://www.youtube.com/watch?v=9zhCMVu0NHU>

Abe 16 – 22 astea

Motibazioa

Abenduko hirugarren astean sartu gara bete-betean. Hirugarren bela piztuko dugu. Gero eta hurbilago gaude. Maria ilusioz eta pozez dago zain. Gero eta gutxiago falta da Jesusen jaiotzarako. Aste hau Mariari, Ama Onari, eskainiko diogu. Berak gida gaitzala eta Jesusekin egingo duen bezala lagun gaitzala.

Baliabideak: dinamikak, testuak, otoitzak, bideoak...

1. Otoitza: Eskaerak:

Gaur, Jainkoak guretzat gordeta daukan dohainik preziatuena aurkitzen laguntzeko eskatzen dizugu. Jesusen etorrerako protagonista izan gaitzela. Ez dezagula Jaunaren etorrera zarrastelkeriazko festa bihurtu. Gerran dauden lurraldeak adiskidetzera eta bakean bizi ahal izatea eskatzen dizugu. Jesus etorrerarako giro atsegina eraiki dezagula geure familiarekin eta maite ditugunekin. Ospa dezagun Abendua, elkartasuna eta maitasuna protagonista direla.

2. Testua: Belengo Maria

Belengo Maria, Jesusen ama,
zure aurrean gure bihotza...
irakats ieza dazu maitasunean eta adiskidetasunean hazten.

Belengo Maria, Jesusen ama,
zure aurrean gure eskuak...
irakats iezaguzu Gabon berri bat eraikitzen.

Belengo Maria, Jesusen ama,
Zure aurrean gure fedea...
irakats iezaiozu zintzoa eta konprometitu izaten.

Belengo Maria, Jesusen ama,
Zure aurrean gure kezak eta beldurrak...
irakats iezaguzu bizitzan ausartak izaten.

Belengo Maria, Jesusen ama,
Zure aurrean gure apetak eta egoismoak...
irakats iezaguzu eskuzabalak eta solidarioak izaten.

Belengo Maria, Jesusen ama,
Zure aurrean gure gabonak opariz beteak...
irakats iezaguzu eskuzabaltasunez partekatzen.

3. Abestia: "De Belén." Hakuna

<https://www.youtube.com/watch?v=9zhCMVu0NHU>

4. Abestia: "Mary, did you know?" Pentatonix

<https://www.youtube.com/watch?v=ifCWN5pJGIE>

2025 URTARRILA

URTARRILA: ASUMITZEN DUGU GEURE ERANTZUKIZUNA

Hileko motibazioa

Urte berria asmo onez beteta dator, baina ez hori ez da nahikoa. Asmoak egitate bihurtzeko erantzukizuna hartu behar da. Eta asmo pertsonalekin batera, hil honek bakearen alde borrokatzeko beharra gogorarazten digu. Bakea, denon arteko benetako berdintasuna lortzeko bide bakarra, guztion etorkizuna segurtatzeko bide bakarra. Bakearen alde lan egitea norberaren esku dago, erantzukizun hori onartu beharra daukagu, eta horregatik ausartzen gara elkarrekin esatera: "Kontatu nirekin".

1. astea

Ebanjelioa: Ebanjelio Santuaren irakurketa San Markosen arabera 1, 7-11

Honela hots egiten zuen: «Nire ondoren dator ni baino ahaltsuago dena, eta ni ez naiz inor makurtu eta haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Nik urez bataiatu zaituztet; hark, ordea, Espiritu Santuaz bataiatuko zaituzte».

Egun haietako batean, Jesus etorri zen Galileako Nazaretetik, eta Joanek bataiatu egin zuen Jordanen. Jesusek, uretatik ateratzerakoan, zerua urratzen ikusi zuen eta Espiritua, uso tankeran, beregana jaisten. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: «Zu zaitut neure Semea, neure maitea, zu zaitut atsegin».

Bideoa: Corto Pixar "Piper"

<https://www.youtube.com/watch?v=rr7AWD2PZaI>

Gogoeta bideoaren ostean:

- Zer gertatzen zaio Piperri?
- Nola sentitzen da bideoaren hasieran? Eta amaieran? Zer gertatu da?
- Zer esango zeniokeen zuk Piperri han egon bazina?
- Gustatuko litzaizuke Piper bezalako lagunak edukitzea? Zergatik?
- Zer ikasi duzu beragandik?

Otoitza

Jauna, eskerrik asko oparitzen diguzun egun berri honengatik, bizitzagatik, osasunagatik, familiagatik eta lagunengatik.

Arren eskatzen dizugu izan zaitezela gure ekintzen, gure hitzen, gure denboraren eta gure arduren erantzule. Zure seme Jesusen ereduari jarraitu nahi diogu, bere gain hartu baitzuen maitasunez eta obedienez gu salbatzeko erantzukizuna.

Emaguzu indarra eta jakinduria ikastetxean, etxean eta gizartean ditugun betebeharrak gauzatzeko. Ohar gaitezela egiten dugun guztiak ondorioak dituela guretzat eta besteentzat. Izan gaitezela gai geure akatsak aitortzeko, barkamena eskatzeko eta egindako kaltea ordaintzeko. Izan gaitezela solidarioak gehien behar dutenekin eta lagun dezagula mundu hobe bat eraikitzen.

Jesukristo gure Jaunaren izenean eskatzen dizugu. Amen

Abestia: Pablo Álbora - Volver a empezar

Gogoeta: Urte Berrirako asmoak oso baliabide egokia dugu datorren urtean lortu nahi dugunean zentratzeko. , aren helburuak gure burmuinak datorren urtean lortu nahi duen horretan arreta jartzeko modu bikaina dira.

Konpromiso batek erantzukizuna hartzea suposatzen du geure buruari eta besteei egiten dizkiegun promesei dagokienez. Asmo batek, ordea, erabaki duguna egiten ez badugu ere, horretarako baimena dugula esan nahi du, ez baitago konpromisorik.

- Konpromisoak hartzeko eta funtzionatzeko 5 modu:
- Esatea ez da nahikoa, frogatu egin behar da.
- Onar itzazu zeure konpromisoak eta antola zaitez betetzeko.
- Osa ezazu ekipo bat.
- Utzi zure ekintzak mintza daitezen zure orde.
- Orekatu espektatibak...
- Ebalua itzazu noizean behin zeure konpromisoak.

2. astea

Ebanjelioa: Ebanjelio Santuaren irakurketa San Joanen arabera 1, 19-28
(*ikasleek euren artean komentatzea edo hausnartzea proposatzen dugu*)

Judu agintariek apaiz eta levitar talde bat bidali zioten Joani Jerusalemdik, nor zen galdet- zera. Hark argi eta garbi aitortu zuen:

-Ni ez naiz Mesias.

-Orduan, zer? Elias zara? -galdetu zioten.

Joanek erantzun:

-Ez.

-Etortzekoa den profeta zara?

Hark erantzun:

-Ez.

Berririo galdetu zioten:

-Nor zaitugu, bada? Bidali gaituztenei erantzunen bat eraman behar diegu. Zer diozu zeure buruaz?

Joanek, Isaias profetaren hitzak aipatuz, esan zuen:

-Ni, basamortuan oihuka ari denaren ahotsa naiz: «Prestatu bidea Jaunari»

Talde hartako batzuk fariseuak ziren. Hauek galdetu zioten:

-Beraz, Mesias ez bazara, ez Elias, ezta etortzekoa den profeta ere, nola ari zara bataiat- zen?

Joanek erantzun zien:

-Nik urez bataiatzen dut; zeuen artean baduzue, ordea, ezagutzen ez duzuen bat, nire ondoren datorrena, eta ni ez naiz duin hari oinetako lokarriak askatzeko ere.

Hau dena Betanian gertatu zen, Jordan ibaiaren beste aldean, han ari baitzen Joan ba- taiatzen.

Bideoa: Alike - Labur Animatua

Alikek gaur egungo munduaren metafora bat izan nahi du, errutinak, nortasun faltak, es- kolako eta laneko jardunaldi amaigabeek, eguneroko lanaren pisuak zapaldurik daukan mundua, ikasle bakoitzaren motxila astuna bezala, ezagutzaz beterik baina pasioz, ta- lentuz eta sormenez hutsik.

Alikek bezala, bizitzak kolorez jantzi behar du, aitaren urdina eta semearen laranja be- har ditu. Ura eta eguzkia gogorarazten didaten koloreak, biak ezinbestekoak bizitzarako. Izan ere, semea hiri lainotsu eta nortasun gabe batean distiratzten duen eguzkia baita.

Baina Alike arteen aldeko aldarrikapena ere bada da, alegia, musikaren, arte plastikoen edo, labur esateko, sormenaren aldekoa, errutina eta konbentzioak hausteko aldarrikapena.

Alike, horrez gain, aita batek semeari ematen dion besarkada zintzoa da. Besarkada horren bidez, aita, egun amaigabe baten amaieran, bere jatorrizko kolorea berreskuratu ahal izango du, burokraziaren alderdirik txarrena irudikatzen duten paperezko mendien artean galdu zuena.

Otoitza

Jainko maitea,

Eskertzen dizugu geure erantzukizuna onartzeko aukera ematen diguzulako. Lagun ieza-guzu arduratsu izaten eta zuzen jokatzeko. Lagun ieza-guzu atseginak izaten eta besteei laguntzen. Lagun onak izaten eta geure familiez arduratzen. Emaguzu indarra erabaki zuhur eta ausartak hartzeko eta sortzen zaizkigun erronkei aurre egiteko. Lagun ieza-guzu lider zuzen eta bihozberak izaten, elkarrekin lan eginez mundua hau leku hobe bat izatea lor dezagun.

Amen.

Abestia: José Luis Perales "Que Canten Los Niños"

Gogoeta: Zeure benetako grina ezagutzea eta zeure bizi asmora egokitzea funtsezkoa duzu egunerokotasunaz erabat gozatzeko. Pertsona batzuek oso argi daukate, baina beste batzuei ez zaie hain erraza gertatzen beren bidea aurkitzea. Gure asmoa aurkitu eta argitzeko, garrantzitsuena geure burua ondo ezagutzea da, nor garen eta zerk mugitzen gaituen jakitea. Puntu hauek argi badauzkagu, norabide zuzena aurkitu eta geure helburua iristeko aukera izango dugu, horrela pozik eta zoriontsu bizi ahal izateko. Nietzschek zioen bezala: "Zeure xedea galtzean, bidea galdu duzu."

3. Astea

Evangelio: Ebanjelio Santuaren irakurketa San Joanen arabera 1, 35-42

Hurrengo egunean, berriro ere bertan zegoen Joan bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zuen: «Hona hemen Jainkoaren Bildotsa». Bi ikasleek, hori entzutean, Jesusi jarraitu zioten. Jesusek, atzera begiratu eta ondoren zetozkola ikusirik, galdetu zien:

–Zeren bila zabiltzate?

Haiek erantzun:

–Rabbi, non bizi zara? (Rabbik «Maisu» esan nahi du).

Jesusek esan zien:

–Etorri eta ikusi.

Joan ziren, non bizi zen ikusi eta berarekin gelditu ziren egun hartan. Arratsaldeko laurak aldean zen. Joani entzun eta Jesusi jarraitu zioten bietariko bat Andres zen, Simon Pedoren anaia. Lehenik, bere anaia Simonekin egin zuen topo, eta esan zion: «Mesias aurkitu diagu» (Mesiasak «Kristo» -hau da, Gantzutua- esan nahi du). Eta Jesusengana eraman zuen. Jesusek, begira-begira jarriarik, esan zion: «Simon zara zu, Joanen semea, baina aurrerantzean Kepa deituko zara» (Kepak «Pedro» -hau da, Harkaitz- esan nahi du).



Bideoa: For The Birds by Pixar

Gogoeta: Haurrak dira munduan bakea eraiki dezaketenak, gure esku dago bakezko pertsonak izatea. Ez dira besteak tratatu behar, norbera tratatua izatea gustatuko ez litzaigukeen bezala. Tolerantzia, ulerkuntza eta harreman osasungarriak dira aukerarik onena. Galdera: Zer jarrera dute txori txikiek txori handiaren aurrean?

Otoitza:

«Jesus, neure inguruan bake haziak ereiten laguntzeko eskatzera nator...

Irribarre bat, esku bat luzatuta, ekintza eskuzabal bat.

Nahi dudana lortzen ez dudanean haserretu ordez, balora dekadala badaukadana.

Gauzak neuretzat nahi beharrean, disfruta dekadala beste batzuekin partekatzen.

Gaizki dauden gauzengatik atsekabetu ordez, saia nadila gauza horiek aldatzen.

Norbait nire erruz haserretzen bada, jakin dekadala barkazioa eskatzen.

Lasai ez dagoen norbaitekin topo egiten dudanean, egin dekadala otoitz beraren alde...»

Abestia: IMAGINE. (Ultimate Mix, 2020) - John Lennon & The Plastic Ono Band (with the Flux Fiddlers) HD

Gogoeta:

"SOLIDARITATEA BEHAR DUENARI LAGUNTZEA DA ORDAINEZ EZER ESPERO GABE".

- Nola sentitzen zara besteei laguntzen diezunean?
- Eta zuri laguntzen dizutenean?

Denok izan behar dugu solidarioak eta elkarri lagundu, seguru horrela hobeto sentituko garela.

Aldameneko lagunari begiratu eta besarkada bat emango diogu.

Azkenik, Aita Gurea errezatuko dugu elkarrekin, agurtzeko.

4. Astea**Ebanjelioa:** Ebanjelio Santuaren irakurketa San Markosen arabera 1, 14-20

Juan atxilotua izan ondoren, Jesus Galileara joan zen Jainkoaren Ebanjelioa aldarrikatzera; honela zioen:

«Betea da garaia, eta gainean duzue Jainkoaren erregetza. Bihozberri zaitezte eta sinetsi berri ona».

Jesusek, Galileako aintzira bazterrean zehar zihoala, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak uretara botatzen, arrantzaleak baitziren.

Jesusek esan zien:

«Zatozte nirekin eta giza arrantzale egingo zaituztet».

Haiek, besterik gabe, sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Aurreraxeago, Santiago eta Joan anaiak, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; sare konponketan ari ziren beren ontzian. Ikusi bezain laster, dei egin zien. Haiek, beren aita Zebedeo eta mutilak ontzian utzirik, Jesusen ondoren abiatu ziren. Jesusek esan zien:

«Etorri nirekin, eta gizonen arrantzale egingo zaituztet».

Berehala utzi zituzten sareak eta jarraitu egin zioten.

Bideoa: 30/01: SED – SHG eta Ez-biolentziaren eta Bakearen Eguna

(SED Solidaridad Educación Sesarrollo – SHG Elkartasuna Hezkuntza Garapena)

Otoitza: Asisko San Frantziskoren otoitza

Jauna, bihur nazazu zeure bakearen zerbitzari:
gorrotoa dagoen lekuan jar dezadala nik maitasuna,
iraina dagoen lekuan jar dezadala nik barkazioa,
haserrea dagoen lekuan jar dezadala nik batasuna,
okerra dagoen lekuan jar dezadala nik egia,
zalantza dagoen lekuan jar dezadala nik fedea,
etsipena dagoen lekuan jar dezadala nik itxaropena,
ilunpea dagoen lekuan jar dezadala nik argitasuna,
Tristura dagoen lekuan jar dezadala nik alaitasuna.

Ene Maisua, ez dezadala nik nahi kontsolatua izan kontsolatzea baizik,
ulertua izan, ulertzea baizik,
maitatua izan, maitatzea baizik,
ze eman ez, hartu egiten da, ahaztuz, aurkitu egiten da,
besteari barkatuz, norberari barkatzen zaio,
eta hilez, betiko bizitzara berpizten da.

Amen.

Abestia: Antonio Flores – No Dudaria (Video TVE Playback)

Gogoeta: Diotenez, Rafael?? Migel Anjelek marmolezko blokea ekarri zioten bezain laster
"ikusi" omen zuen bertan bere Dabid. Gero, bere lan guztia, ikusten zuen irudiarekin bat
ez zetorren guztia kentzea izan zen. Horrela burutu zuen bere maisulana.

Pertsona guztiak bereziak dira, paregabeak, errepikaezinak, hasieratik dira "Dabid per-
fektu" bat. Eta eginkizuna ezpurutasunak garbitzean datza, ez dagokiona ezabatzean.
Helburua ez da ezer "lortzea" erdua hor dago betidanik, nahikoa da garbitzea, leuntzea,
zizelkatzea, baztertzea. Argiari sartzen uztea, ilunpea barreiatu dezan. Beraz, gizaki oro-
ren helburua da, lehenik eta behin, bere buruaren bertsiorik onena izatea. Horrek bene-
tako bihurtzen du eta mundu honetan beste inork lortu ezingo duen balio bat ematen dio.

TUTORETZA: HELBURUEN HORMA

Helburuen horma (banakakoa)

Haur bakoitzak helburu edo xede bat duenean, kartoi mehe batean 'irudikatu' behar ditugu
denak. Haur bakoitzak bere kartoi mehea eduki behar du. Helburua idatzi behar du bertan.
Gero, aldizkarietan, egunkarietan, Interneten... irudi ebakigarriak bilatuko ditugu, gure hel-
buru edo xedean eransteko.

Hori lortzera bultzatzen gaituzten irudiak bilatu behar ditugu, helburu horrek guretzat zer
esan nahi duen islatzen dutenak. Pegatinak, errotuladoreak, purpurina... ere erabil ditzake-
gu. Gure horma irudia edo xede horma bereziago egiten duen edozein elementu.

Helburu bakoitzaren alboan "tenporalizatu" egin behar ditugu berauek. Tenporalizatzeak
esan nahi du urteko egutegian datak jartzea helburu horiek lortzeko aurreikusten dugun
epearen arabera. Txikienentzat, jakina, hori oso anbigua da, oraindik ez baitute hain epe
luzera pentsatzeko gaitasunik.

Horregatik, igandero astearen marrazki bat egingo diegu (ordutegi bat balitz bezala), asteko
helburuak gogorarazteko eta lortzen duten egun bakoitzean 'positibo' bat jartzeko. Positibo
horretarako erabil ditzakegu, errotuladoreak, pegatinak, zigiluak....

Helburuen horma (taldearentzat)

Horma irudi bat egingo dute ikasgelan denen artean kartoi mehe batean, eta haur bakoitzak
bertan idatziko du ikasturte honetarako daukan helburua.

2025 OTSAILA

OTSAILA: ASKO DAUKAGU ESATEKO

Hileko motibazioa

Zaila da ezer esateko ez duten gazteak aurkitzea. Bitartekoak, hizkuntzak, teknologiak dira aldatzen dena. Gazteek presentzia iraunkorra dute mundu digitalean. Mota guztietako hizkuntzak erabiltzen dituzte komunikatzeko: hizkuntza grafikoak, bisualak, musikalak, kei-nuzkoak, estilistikoak. Esploratzeko eremu bat da, denak beren hazkundearen partaide senti daitezen. Eta egokitzeke garaia, elkar ulertzeko lehen urrats gisa.

ots 03 astea

Ebanjelioa:

Ebanjelio Santuaren irakurketa San Mateoren arabera 5, 13-16

Aldi hartan Jesussek bere dizipuluei esan zien:

«Zuek zarete munduarentzat gatzak. Baina gatzak gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertarako balio, botatzeko baizik eta jendeak zapaltzeko. Zuek zarete munduarentzat argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen hiria. Kriseilua ere ez da pizten ontzipean ipintzeko, argimutilaren gainean baizik, etxeko guztiei argi egin diezaien. Era berean, zuen argiak denon aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita goretz dezaten.

Ebanjelioaren hausnarketa: Jesussek zoriontasunak aldarrikatu zituenean, bere jarraitzaileei eta zoriontasun horiek betetzeko prest zeudenei esan zien: "Zuek zarete lurraren gatzak eta munduaren argia". Baina gatzak gezatzen bada, alegia, zoriontasunak alde batera uzten baditugu, ezertarako balio ez duen gatz hori bezalako bihurtuko gara.

Bideoa: Nerabe batek Francisco Aita Santuari eginiko fede aitortza, Amén - testimonio de María

Otoitza:

Jesukristo, Unibertsoko Erregea,
zuregana gatzak apaltasunez, erreguka.

Begiratu begi onez gazterari,
Itxaropen eramaile baitira Elizarentzat eta munduarentzat.

Jesukristo, gazteen lagun horrek,
Bedeinka itzazu aurkikuntzaren eta bereizkuntzaren bideak,
Alaitasun denboren eta zailtasun esperientzien artean,
zure Elizaren etengabeko maitasunarekin eta babesarekin.

Jesukristo, zeure herriaren bihotzetan bizi zaren horrek,
Egizu denok, gazte eta zahar, elkarrekin jardun dezagula,
Suhartasuna elikatzeko, ametsak ernarazteko,
Profeziak sorrarazteko eta itxaropenak pizteko.

Jesukristo, gizateria guztiaren erredentorea,
Ireki itzazu gure bihotzak gazte guztiak aurkitzeko,
Konpainia egin eta elkarrekin egon gaitezen;
Eta Eliza gisa geure misio santurantz abia gaitezen.

Jesukristo, Aitarekin eta Espiritu Santuarekin batera,
entzun maitasunez gure otoitza eta
gera zaitez gurekin betirako.

Amen.

Frantzisko Aita Santua, ChristusVivit, 199

Abestia: Manuel Carrasco - Hay que vivir el momento (Manuel Carrasco - Hay Que Vivir El Momento)

Gogoeta: Aita Santuak gazteei eginiko gogoeta (JMJ LISBOA 2023)

" Gazte maiteok, behar zaituztegu, zuen sormena, zuen ametsak eta ausardia, sinpatia eta irribarreak behar ditugu, zuen poz kutsakorra eta egoera bakoitzera eramaten dakizuen zoramena behar ditugu, ohikeriatik eta eskema errepikakorretatik ateratzen laguntzeko. Aita santu gisa esan nahi dizuet: Eliza zuekin dago eta behar zaituzte, zuetako bakoitza, gaztetzeko, bide berriak urratzeko, hizkuntza berriak esperimentatzeko, alaiago eta abegikorrago bihurtzeko. Ez galdu inoiz amesteko eta harrotasunez bizitzeko ausardia! Jabetu zaitezte zaintzaren kulturaz eta zabal ezazue; izan zaitezte anaitasunaren txapeldun; egin aurre bizitzaren erronkei, Jainkoaren sormen leialak eta aholkulari onek gida zaitzaten utziz. Eta, azkenik, mesedez, oroitu nitaz zuen otoitzetan. Nik ere halaxe egingo dut zuen alde; neure bihotzean zaramatzatet".

ots 10 astea:

Ebanjelio dialogatua

MUTIKOA : Maisu, zuk diozu denentzako gatza eta argia izan behar dugula. Aizu, Jesus, ez al duzu uste gehiegi eskatzen diguzula?

NESKATOA: Bai... ez dut uste gure aita eta amei hainbeste exigitzen zietenik.

JESUS: Ni ez naiz etorri legea kentzera, bere osotasuna ematera baizik, eta ziurtatzen dizuet zeru-lurrak desagertuko direla lege horren letra bat edo tilde bat bete gabe geratu baino lehen.

MUTIKOA: Aizu, Maisu, eta legeak dioenetik zerbait alde batera uzten badugu, edo besteei gaizki irakasten badiegu?

JESUS: Hori egiten duena hutsaren hurrengo izango da Zeruetako Erreinuan.

NESKATOA: Eta dena ondo egiten saiatzen bagara eta besteei guk bezala egiten laguntzen badiegu?

JESUS: Orduan garrantzitsuak izango zarete zeruan eta gatza eta argia lurrean.

MUTIKOA: Maisua, nola sar gaitezke Zeruetako Erreinuan?

JESUS: Eskribak eta fariseuak baino hobeak izan behar duzue. Haiei esan zitzaion: "Ez duzu hilko, eta hiltzen badu, epaimahaiak kondenatuko du". Bada, nik esaten dizuet: anaia gaizki tratatzen duen oro kondenatua izango da.

NESKATOA : Baina Jesus, hori betetzea oso zaila da! Gainera... zer gertatzen da neba bakarrik iraintzen badut?

JESUS: Kondenatua izango zara.

MUTIKOA: Orduan... ez da inortxo ere salbatuko! Guztiok elkar iraintzen gabiltza eta...

NESKATOA NIÑA: Entzun, Maisu: lehengoan, lagun bat nirekin haserre zegoela gogoratu nuen, eta munduko arrazoi guztia zeukan!

JESUS: Zer egin zenuen?

NESKATOA: Ba, ni... komulgatzera Joan nintzen.

JESUS: Ez, adiskidea, ez. Dena utzi behar zenuen, lagunari barkazioa eskatzera joan, adiskidetu berarekin eta, orduan bakarrik, komulgatzera hurbildu.

MUTIKOA: Jesus, nik batzuetan ikusi behar ez nituzkeen gauzak ikusten ditut.

JESUS: Horrek badu erremedioa. Zure begiak bekatu egitera eramaten bazaitu, erauzi eta jaurti ezazu zugandik urrut. Hobe duzu begi bat galtzea, osorik surtara jaurtia izatea baino.

NESKATOA: Eta inoiz gureak ez diren gauzak hartzen baditugu? Eskuekin ere bekatu egin daiteke.

JESUS: Zure eskuak arriskuan jartzen bazaitu, moztu eta jaurti ezazu. Hobe da esku bat galtzea osorik leize zulora amiltzea baino.

MUTIKOA: Gutxienez zin egiten utziko diguzu... gezurrez egiten ez badugu.

JESUS: Ez, ez duzue inola ere zin egin behar. Ez zeruagatik, ez lurragatik, ez Jerusalemgo tenpluagatik, ez ezeragatik. Zuek nahikoa diozue baietz edo ezetz esatea.

NESKATOA: Maisua, gauzak oso argi esaten dituzu, baina hain zailak dira betetzeko ze beldur naiz bakarrik geratuko garela.

JESUS: Ez zaizue gustatzen? Ez zaizue ondo iruditzen? Ba... alde etorri zareten bidetik!

MUTIKOA: Ez, Jesus, hori ez. Ez diguzu arrosa bide bat eskaintzen, baina helburuak merezi du. Ezta?

NESKATOA: Maisu, zoazen lekura jarraituko dizugu, eta bidea nekeza bada, zugar aurkituko dugu behar dugun indarra.

Ebanjelioaren hausnarketa: Behin batean, Jesusek dizipuluei irakatsi zien bere doktrinak jarduera legea gainditzeko zuela; honela esan zien: - Entzun duzue "Ez hil" esaten zela. Bada, nik esaten dizuet: ez haserretu, zuen artean bakea egon dadila. Gainera, Jainkoari opari bat aurkeztu nahi badiozue, lehenbizi zeure senideekin eta lagunekin bakean egon behar duzu. Hau ere esaten zien: - Lehen emandako hitza ez hautsi esaten zen, baizik bete ezazu Jainkoari agindutakoa. Baina egin behar dena da ez zin egitea eta ez zina haustea, baizik sinesten dugun arabera baieztetzea edo ukatzea, Jainkoaren izena ez baita txantxetan hartzekoa.

Bideoa: Marcelino Champagnaten bizitza umeentzat

Bideoa ikusi ondoren, deigarrienak iruditu zaizkigun puntuak komentatuko ditugu. Puntu horietako bat zen Marcelinok apaiz izatea amesten zuela, eta lortu zuela. Haren ereduari jarraiki, egin ditzagun geuk ere ahalegin guztiak nahi dugun hori lortzeko, pentsatuz beti izango dugula norbait ondoan etengabeki, ematen dugun pauso bakoitzean, gidatuko gaituena.

Otoitza:

Jesus jauna, eskerrak ematen dizkizugu oparitu diguzun egun honengatik, ematen diguzun bizitzagatik, zaintzen gaituen familiagatik, maite gaituzten lagunengatik, irakasleen diguten maisuengatik. Eskerrik asko zeure antz irudira sortu gintuzulako, eta hitza-
ren dohaina eman diguzulako, zurekin eta besteekin komunikatzeko.

Badakigu esateko asko dugula, partekatzeko asko dugulako. Maite zaitugula esan nahi dizugu, zugar konfiantza daukagula, behar zaitugula. Barkatzen diguzula esan nahi dizugu, laguntzen eta babesten gaituzula. Gure laguna, gure anaia, gure salbatzailea zarela esan nahi dizugu.

Baina, horrez gain, besteei esan nahi diegu zer sentitzen dugun, zer pentsatzen dugun, zer amesten dugun. Besteei esan nahi diegu zer ikasten dugun, zer aurkitzen dugun, zer sortzen dugun. Besteei esan nahi diegu zerk pozten gaituen, zerk tristatzen gaituen, zerk kezkatzen gaituen. Besteei esan nahi diegu zer gustatzen zaigun, zer gustatzen ez zaigun, zerk harritzen gaituen.

Laguniezaguzu, jauna, gure hitza ondo erabiltzen, beti egiazkoa, zintzoa eta ederra izan dadin, ontasunezkoa, edertasunezkoa. Laguniezaguzu, jauna, gure hitza ondo erabiltzen, betiere laudoriozkoa, eskerronezkoa, barkamenezkoa izan dadin. Laguniezaguzu, jauna, gure hitza ondo erabiltzen, betiere maitasun, bake eta itxaropen hitza izan dadin.

Jauna, irakatsiezaguzu zure hitza entzuten, hau da, bizia ematen duen hitza, argitzen duen hitza, transformatzen duen hitza. Jauna, irakatsiezaguzu besteen hitza entzuten, anaiaren hitza, abegi egiten duen hitza, kontsolatzen duen hitza. Jauna, irakatsiezaguzu

Mariaren hitza entzuten, amaren hitza baita, obeditzen duen hitza, bedeinkatzen duen hitza.

San Marcelino Champagnat hezitzaile handia eta Mariaren maitale sutsua izan zinen horrek, erregutu ezazu gure alde Jaunaren aurrean geure hitza zuzen erabiltzen ikas dezagun, ebanjelizaziorako, hezkuntzarako eta santutasunerako tresna gisa.

Amen.

Abestia: Hakuna (Huracán)

Gogoeta:

Zu bitxi baliotsu bat zara

– «Maisu, zugana nator, izan ere, hain hutsala sentitzen naiz ze ez daukat indarrik ezer egiteko. Esaten didate ez dudala ezer zuzen egiten, moldakaitza naizela, inork ez nauela. Nola hobetu naiteke?, zer egin dezaket jendeak nitaz iritzi hobea eduki dezan?»

Maisuak esan zion:

– Sentitzen dut, gazte, ezin dizut lagundu, aurrena nik neuk daukadan arazo bat ebatzi behar dut. Beharbada gero...

Eta etenaldi bat egin ondoren, jarraitu zuen:

– Zuk neuri lagunduko bazenit, neure arazo hau azkarrago ebatzi ahal izango nuke eta beharbada gero zuri lagundu ahal izango dizut.

– Aaaa.... ados nago maisu – esan zuen totelka mutilak, baina berriz ere baztertua uzten zutela sentitu zuen, bere premiak ez zituela inork aintzat hartzen.

– Beno – esan zuen maisuak.

Ezkerreko eskuko hatz txikerrean zeukan eraztun bat kendu eta mutilari emanaz, esan zion:

– Hartu hor kanpoan dagoen zaldia eta zoaz merkatura. Eraztun hau saldu beharra daukat zor bat ordaindu ahal izateko. Ahalik eta preziorik onena lortu behar duzu, baina ez onartu urrezko txanpon bat baino gutxiago. Zoaz eta itzuli ahalik eta azkarren.

Mutila, eraztuna hartu eta abiatu egin zen. Heldu bezain laster hasi zen la ez zen iritsi, merkatariei eraztuna eskaintzen hasi zen merkatariei eraztuna eskaintzen. Haiek nola-baiteko interesarekin begiratzen zioten, mutilak eraztuna zenbatean saldu nahi zuen esaten zien arte. Urrezko txanpona aipatu bazain laster, batzuek barre egiten zuten, beste batzuek bizkarra rematen zioten, harik eta aguretxo batek azaldu zion arte ezen urrezko txanpon bat oso gauza baliotsua zela eraztun baten truke emateko.

Bidean topo egiten zuen guztiei eskaintzen zien eraztuna, baina alferrik. Porrot egin zuelako lur jota, zaldi gainera igo eta itzuli egin zen. Maisua zegoen gelara sartu eta esan zion:

– Maisu, sentitzen dut, baina ezin da lortu zuk eskatu didazun prezioa. Agian zilarrezko bizpahiru txanpon lor litezke baina, eraztunaren benetako balioari dagokionez, ez dut uste inor engainatuko dugunik.

– Zeinen garrantzitsua den oraintxe esan duzuna, gazte – erantzun zion irribarretsu maisuak.

– Lehenengo eta behin, eraztunaren benetako balioa jakin behar dugu. Hartu berriro zaldia eta zoaz bitxigilearengana. Inork jakitekotan, hark jakingo du. Esaiozu eraztuna saldu nahi duzula, eta ea zenbat ordainduko lukeen. Ez dio axola zenbat eskaintzen dizun, ez iezaiozu saldu. Itzuli hona nire eraztunarekin.

Bitxitegira iritsi zen, bitxigileak eraztuna ikusi zuen kriseiluaren argitan, bere luparekin aztertu zuen, pisatu zuen, eta gero esan zion: begiratu zuen, pisatu egin zuen, eta gero esan zuen:

– Esaiozu maisuari, orain bertan saldu nahi badu, nik ezin dizkiodala eman eraztunagatik berrogeita hemezortzi urrezko txanpon baino gehiago.

– Berrogeita hemezortzi urrezko txanpon?!!! – esan zuen gazteak.

– Bai – erantzun zuen bitxigileak – Nik badakit denborarekin hirurogeita hamar txanpon ere lor litezkeela, baina ez dakit... Saltzeko halako presa badauka...

Mutila pozik itzuli zen irakaslearen etxera gertatutakoa kontatzera.

– Eseri –esan zion maisuak, entzun ondoren-. Zu eraztun hau bezalakoa zara: bitxi bat, baliotsua eta paregabea. Eta horrexegatik, ezin zaitzake behar bezala ebaluatu aditu bate baizik. Zer zabilta bizitzan zure benetako balioa edozeinek kalkula dezan utziz?

Eta hori esan ondoren, berriro jarri zuen eraztuna bere ezkerreko eskuko hatz txikerrean.

ots 17 astea

Ebanjelioa: *Zorionekoak behartsuak; ai zuek, aberatsok!*

Ebanjelio Santuaren irakurketa San Lukasen arabera 6, 17. 20-26

Jesus, ikasleekin menditik jaitsi ondoren, zelaigune batean gelditu zen. Ikasleetariko asko harekin ziren; baita herriko jende-talde handia ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiro eta Sidongo itsasaldetik etorria,

Jesusek, ikasleei begira, honela esan zuen:

«Zorionekoak behartsuok,
zuek baituzue Jainkoa errege.

«Zorionekoak orain gose zaretenok,
aseko baitzaituzte Jainkoak.

«Zorionekoak orain negar egiten duzuenok,
barre egingo baituzue.

«Zorionekoak zuek, Gizonaren Semea dela eta,
jendeak gorrotatu, kanpora bota eta
madarikatuko zaitzutenengan
eta izen txarra emango dizuetenean.

Alai zaitezte egun horretan
eta egin pozez jauzi,
handia izango baita zuen saria zeruan;
gauza bera egin zieten profetei jende horren gurasoek.

«Baina ai zuek, aberatsok, bai baituzue zeuen poza!
«Ai zuek, orain aseak zaudetenok, gose izango baitzarete!
«Ai zuek, orain barre egiten duzuenok, aiene eta negar egingo baituzue!
«Ai zuek, mundu guztiak zuetaz ongi hitz egingo duenean,
gauza bera egin baitzieten sasiprofetei jende horren gurasoek!

Otoitz: Otoitz bat abestia ere bada; horregatik gaur abestuz errezatzea proposatzen dut. Eta otoitz abestu honen helburua eraman dezagula geure bizitzara, besteen bizitza zertxobait hobea izatea lortzeko.

Bizitza oparia bada... oparitu ezazu


<https://go.ivoox.com/rf/19318644>

Abestia: Zoriontasunak eta beraien mezua gogoratuko dugu

https://www.youtube.com/watch?v=UHnyiQ_QCKM

Ondoko hitzen artean aukera itzazu bost, errukiaren zoriontasuna sustatuko duen piramide bat osatzeko eta pertsonak Jainkoaren Erreinuaren presentzia sentituko duten mundu bat eraikitzeko.

Errukia - Egia - Anaitasuna - Bakea - Justizia - Bihotz garbitasuna - Kontsolamendua - Pazientzia - Alaitasuna - Jainkoaren seme-alabak



Gogoeta: Bereziak gara... ez gara desberdinak



Nicolas Solís, garun paralisia daukan haur bat, umezurztegira eraman dute. Han bizi diren haur guztiek "berezia" dela esaten dute. Nikolas iritsi denetik, Maria da harengana hurbildu den bakarra, eta bere jolasetan integratzeko modua aurkitu du, bere eskua eta Nikolasena kordel batekin lotuz. Gainerako guztiek "arraroa" dela esaten dute, baina Mariari ez dio axola.

Mariaren ardurak eta maitasunak behin baino gehiagotan sorrarazten dute Nikolasen irribarrea.

Mariak Nikolasen bizitza markatu zuen, baina baita Nikolasek ere Mariaren bizitza. Nikolas eskertzen zuen Mariarengan premia bereziak dituzten ikasleei bere bizitza eskaintzeko bokazioa. Orain profesional bat da eta, beste hainbat irakasle bezala, ikasle askoren bizitzak aldatzen ditu.

- Eragin dezakezu norbait zure ondoan hobeto, zoriontsuago sentitzea?
- Zer egingo zenuke hori lortzeko?

ots 25 astea

Ebanjelioa:

Izan errukitsuak zuen Aita errukitsua den bezala



Ebanjelio Santuaren irakurketa San Lukasen arabera 6, 27-38

Aldi hartan Jesussek bere dizipuluei esan zien:

«Baina zuei, entzuleoi, hau diotsuet: Maitatu etsaiak, egin ongi gorroto dizuetenei, bedeinkatu madarikatzen zaituztetenak, egin otoitz izen ona kentzen dizuetenen alde.

«Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari, ez ukatu soinekoa ere. Eskatzen dizun edonori, eman, eta zeurea kentzen dizunari, ez bihurtarazi. Eta besteek zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei.

«Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue? Bekatariak ere maite dituzte beren maitaleak. Eta ongi egiten dizuetenei bakarrik egiten badiezue ongi, zer esker on zor zaizue? Bekatariak ere egiten dute beste horrenbeste.

Eta ordaina hartzekotan bakarrik ematen baduzue maileguz, zer esker on zor zaizue? Bekatariak ere aurreratu ohi diote elkarri, beste hainbeste hartzekotan. Ez! Zuek maitatu etsaiak, egin ongi eta eman maileguz ordainari begiratu gabe: handia izango da zuen saria eta Goi-goikoaren seme-alaba izango zarete, ona baita bera esker txarreko eta gaitzontzat. Izan zaitezte errukitsuak, zuen Aita errukitsua den bezala. «Ez gaitzetsi inor eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu inor eta Jainkoak ere ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta Jainkoak ere barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

Irakurketa horretatik, geure ingurura begiratzen badugu:

- Zer uste duzue egin dezakegula besteen alde?
- Inguruan ditugunekin benetan behar bezala jokatzeko al dugu?
- Zertan hobetu ditzakegu geure eguneroko ekintzak?

Bideoa: ENPATIAREN BALIOA!!

Gogoeta egingo dugu bideoari buruz honako galdera hauekin:

- Zer da enpatia?
- Beti jartzen gara bestearen lekuan?
- Nola sentitzen gara besteekin ondo portatzen garenean?

Otoitza

"Maitasunak beti Jainkoarenganako eta lagun hurkoarenganako joera eduki behar du". – Frantzisko Aita Santua

Errezatu ezazu maitasun otoitz bat: Lagun hurkoarenganako maitasuna egunero gurekin bizi diren pertsonen ematen diegun tratuan islatzen da. Ez dezagun ahortzi lagun hurkoa maitatzea Jainkoarenganako maitasunarekin lotua dagoela. Jainkoaren laguntza eskatuko dugu lagun hurkoa maitatzeko honako amodiozko otoitz honekin.

Maitasun ororen Jauna,
Atetik irteten naizenean, erakutsi iezadazu neure lagun hurkoa.

Albisteak irakurri bitartean, erakutsi neure lagun hurkoa.

Otoitz egiten dihardudanean, erakutsi neure lagun hurkoa.

Ezkerrean, eskuinean,
agian, une honetan nigana jotzen,
erakutsi neure lagun hurkoa.

Nire begiek, ikusi ondoren, begirada saihestu dutenean.

erakutsi neure lagun hurkoa.

Nire belarriek garrasia entzun ondoren entzungor egin badute
erakutsi neure lagun hurkoa.

Nire historia ez den istorio bat partekatzen duten heinean,
lagundu nirea balitz bezala entzuten.

Erakutsi neure lagun hurkoa.
Eta gero lagundu hura maitatzen.

Bere pozean eta bere larriduran,
Haren poza nirea izan dadin
Eta haren larridura ere nirea.

Utzi maita ditzadan,
Zuk ni maite nauzun bezain era errukitsuan,
Benetako elkartasunez.

Gure abestiak elkarrekin kantatuz.

Uztazu maite ditzadan.

Gora begira nago orain, Jauna.

Erakutsi ezadazu neure lagun hurkoa.

Amen

Abestia: Alvaro fraile - cuenta conmigo - SOL. FE. ANDO.

- Zer diosku abestiak?
- Nori eskaintzen diogu geure eskua?
- Nori eskaintzen digu guri bere eskua?

Pentsa dezagun nork laguntzen digun guri behar dugunean. Elkarri lagundu behar diogu, elkarrekin ibiliz errazago da.

Gogoeta:

Gehiago egin eta gutxiago pentsatu behar dugu, eta bihotzak agintzen dizkigun ekintzak gauzatuko ditugu; batzuetan buruarekin gutxiago pentsatzea eta bihotzarekin gehiago, ona da guretzat eta besteentzat.

Pentsa dezagun gure bizitzako egoeraren bat, norbaitek gure alde bihotzarekin pentsatuz jokatu dueneko, eta beste egoeraren bat, guk besteekin horrela jokatu duguneko.

TUTORETZA → KONDAIRA

Hazkuntza pertsonalari buruz gogoeta egiteko kondaia egoki bat izan daiteke honako hau:

Aspaldi, urrutiko erresuma batean, Leo zeritzan printze bat bizi omen zen. Erregearen seme bakarra zen eta, beraz, egunen batean erregetza oinordetuko zuen. Halere, Leok ez zeukan inolako interesik ez errege izateko eta ez ezertan ikasteko. Leok nahi zuen gauza bakarra dibertitzea zen eta gogoak ematen ziona egitea. Leo printze apetatsua, alferra eta egoista zen.

Halako batean, erregeak erabaki zuen bazela garaia Leo errege ona izateko prestatzen has zedin. Esan zion estudiantzen, entrenatzen eta besteei laguntzen hasi beharra zeukala. Leok ezetz esan zion, ez zuela errege izan nahi, berak nahi zuen gauza bakarra zoriontsu izatea zela. Erregea haserretu egin zen, eta esan zion jarrera aldatzen ez bazuen, zeukana baloratzen ikasiko zuen leku batera bidaliko zuela.

Biharamunean, erregeak bere mehatxua bete zuen. Inor bizi ez zen uharte batera bidali zuen Leo. Han txabola bat, iturri bat eta zuhaitz bat besterik ez zegoen. Pertsona gisa hazi zela frogatzen zuenean bakarrik itzul zitekeela esan zion. Leo traizionatua, senti-



tu zen, eta aitari oihuka esan zion gorroto zuela. Erregeak alde egin zuen, Leo uhartean bakarrik utzita.

Leok pentsatu zuen aita laster itzuliko zela beraren bila, eta dena txantxa bat besterik ez zela izan. Txabolan etzan zen, eta itxaroten geratu zen. Horrela egunak aste bihurtu ziren, eta asteak hilabete, eta inor ez zen erreskatatzera etorri. Leo gosea, egarria, hotza eta beldurra sentitzen hasi zen. Konturatu zen berak arduratu beharko zuela bere janaria, bere edaria, bere berokia eta bere babesak eskuratzeaz.

Leo txabolatik irten zen, eta uhartea esploratzera. Ikusi zuen iturriari ur freskoa eta garbia zeriola, eta zuhaitzak fruta gozo eta mamitsuak zeuzkala. Poztu egin zen, horrela biziraun zezakeela pentsatuz. Baina iturrira hurbildu zenean, ertzean suge bat kiribilduta ikusi zuen. Eta zuhaitzera hurbildu zenean, han lehoi bat ikusi zuen orroka.

Leo, izuturik, korrika itzuli zen txabolarak babes bila. Sugea eta lehoia bere etsaiak zirela eta min egin nahi ziotela pentsatu zuen. Haiek alde egin arte txabolan itxarotea pentsatu zuen. Baina sugea eta lehoia ez ziren mugitzen zeuden lekutik. Leo konturatu zen aurre egin beharko ziela, janaria eta ura lortu nahi bazituen.

Leo, adorez armaturik, txabolatik irten zen. Sugearengana hurbildu zen, eta iturritik edaten uzteko esan zion. Sugeak begiratu egin zion, eta edan ahal izango zuela esan zion, baina horretarako, aurrea istorio bat kontatu beharko ziola. Leo harritu egin zen, eta ea zergatik galdetu zion. Sugeak esan zion istorioak gustatzen zitzaizkiola, haietatik gauza asko ikasi zitezkeelako. Leok proposamena onartu zion, eta liburu batean irakurria zuen istorio bat kontatu zion. Sugeak arretaz entzun zuen, eta historia eskertu zion. Leok iturritik edan ahal izan zuen, eta hobeto sentitu zen.

Leo lehoiarengana hurbildu zen, eta zuhaitzetik jaten uzteko eskatu zion. Lehoiak begiratu zion, eta jan zezakeela esan zion, baina horretarako aurrea berarekin jolasean ibili beharko zuela. Leo harritu egin zen, eta ea zergatik galdetu zion. Lehoiak esan zion jolasean ibiltzea gustatzen zitzaioela, eta asko dibertitzen zuela horrek. Leok proposamena onartu zuen eta jolasean ibili ziren biak, harrapaketa, ezkutaketa, eta abar. Lehoiak sekulako barreak egin zituen eta eskerrak eman zizkion jolasagatik. Horrela, Leok zuhaitzetik jan ahal izan zuen eta hobeto sentitu zen.

Horrela igaro ziren egunak, eta Leo sugearen eta lehoiaren adiskide egin zen. Egunerok istorio bat kontatzen zion, eta haiekin jolasten zen. Ordainez, haiek edaten eta jaten uzten zioten. Leok gauza asko ikasi zituen sugeagandik eta lehoiagandik, eta haiek gauza asko ikasi zituzten Leogandik. Leo ohartu zen sugea eta lehoia ez zirela etsaiak, irakasleak baizik, eta hazten laguntzen ziotela.

Halako batean, erregea uhartera itzuli zen, Leo nola ote zegoen ikustera. Harritu egin zen Leo osasuntsu, sendo eta zoriontsu zegoela ikustean. Denbora horretan guztian zer egin zuen galdetu zion. Leok esan zion lagunak egin zituela, ikasi egin zuela eta hobetu egin zela. Esan zion jada ez zela printze apetatsu, nagi eta berekoa, baizik eta printze ausart, langile eta eskuzabala. Errege ona izateko prest zegoela esan zion.

Erregea poztu egin zen, eta bere semeaz harro zegoela esan zion. Proba gaintu zuela esan zion, eta erresumara itzul zitekeela. Leo hunkitu egin zen, eta esan zion sentitzen zuela garrasi egin izana. Maite zuela esan zion, eta eskertzen ziola beragatik egindakoa. Erregeak besarkatu egin zuen, eta maite zuela eta barkatzen ziola esan zion.

Leok agur esan zien sugeari eta lehoiari, eta eskerrak eman zizkien erakutsi zioten guztiagatik. Sugeak eta lehoiak esan zioten beraren falta sentituko zutela eta onena opa ziotela. Leok esan zien berriro bisitatuko zituela, eta ez zituela inoiz ahaztuko. Leo aitarekin igo zen ontzira, eta hala urrundu zen uhartetik.

Hala gertatu zen Leoren garapena pertsona gisa eta, denborarekin, errege handi bat izatera iritsi zen. Eta horrela bihurtu ziren sugea eta lehoia ere Leoren adiskide eta zaindari. Hala, uhartea hazkunde leku eta kondaira bihurtu zen.

2025 MARTXOA

MARTXOA: BIDELAGUN IZANGO GAITUZU

Hileko motibazioa

Bidelagunarekin ibilitako bidea bizi izandako bidea da, bidea besteen eta Aitaren presentzia eta laguntza sentituz egitea, beharrezkoa dugu eguneroko bizitzan.

Garizuma, aldatzeko, transformatzeko eta bihozberritzeko denbora da. Helburua, bidaia bat era kontzientean egitea da, bidaiatzeko beharrezkoa den guztiaz hornitua dagoen motxila on batekin.

Gazteek garbi eduki behar dute zer den beharrezkoa, eta bertan behera utzi behar dute alferrekoa den guztia Garizumako bidaia egiteko.

mar 03 astea (hausterre eguna)

EBANJELIOA

Bihotzari gainezka darionaz mintzatzen da ahoa.

Ebanjelio Santuaren irakurketa San Lukasen arabera 6, 39 – 45

Aldi hartan Jesusek parabola bat esan zien dizipuluei:

«Itsua itsuaren gidari izan ote liteke? Ez ote dira biak zulora eroriko?

Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, baina ongi eskolaturiko ikaslea irakaslea adina izango da. Nola ikusten duzu senidearen begiko lasto izpia eta zeure begiko hagaz ohartzen ez? Nola esan diezaiokezu senideari:

“Adiskide, utzi begian duzun lasto izpia ateratzen”, zuk zeurean duzun haga ikusten ez duzula? Itxurazale hori! Kendu lehenengo zeure begitik haga, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto izpia ateratzeko.

«Ez dago zuhaitz onik fruitu txarra ematen duenik, ezta zuhaitz txarrik ere fruitu ona ematen duenik.

Bere fruituetatik antzematen zaio zuhaitzari; ez da arantzatik pikurik biltzen, ezta sasitik ere mahatsik hartzen.

Ona denak ona ateratzen du bere barneko ontasun altxorretik; eta gaiztoak gaitza bere gaitakeria altxorretik. Ahoak esan, bihotzari gainezka darionetik esaten baitu.

Gogoeta egiteko gaiak:

Zenbat aldiz izan gara bidegabeak eta epaitu ditugu besteak?

Beti daukagu zertan hobetu. Nork bere borondatez esan dezake ozenki zertan hobetu zezakeen bere burua fruitu onak ematen jarraitzeko.

Bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=e-yvBH38yCc>

(Bideoa ikusi bitartean planteatzeko gaiak. Ozenki edo idatziz erantzun daitezke)

- Nolakoa da une honetan egiten ari naizen bidea?
- Atsegina al da, ala alderantziz gogorra eta nekagarria?
- Identifikatzen al dut ikusten ari naizen irudietakoren batean?

Otoitza:

JESUS, JAINKOARENGANAKO BIDEA

-Telebistan ohitu egin gara sufrimenduei eta hondamendiei buruzko eszena izugarriak ikusten batere hunkitu gabe. Bihozgabe bihur gaitezke! Jesus gurutzean hil zen: tortura izugarria zen, batzuen isekak, besteen axolagabekeria. Baina ez zen gorrotozko hitz bakar bat ere atera haren ahotik!

Jesusi jarraitzeak aukeratzeraz garamatza: Lagun hurkoari sufriarazten dioten horietakoak al gara, geure keinu eta hitzekin, geure iseka, egoismo eta koldarkeriarekin?

Zer bide proposatzen digu Jesusek?

*Jesus, Jainkoaranzko bidea,
Jesus, gizakion bidea,
zure bidaia gelditu egingo al da
gurutzearen aurrean?*

*Jesus gurutziltzatua, gurutzetik
barkatu egin diezu traizionatu
eta iraindu zaituztenei.*

*Maitasun mugagabe horrekin,
BIZITZAREN garaipen
bihurtu duzu sufrimendua.*

*Gurutzean hiltzean,
dena berritzen duzu.*

Jesus, zuk bide berri bat ireki diguzu!

Jesus, zu zara bide berria!

*Zu zara maitasun salbatzailea,
jaioarazten duen maitasuna,
betiko bizitza ematen duen maitasuna.*

Maitasunak gurutzetik BIZITZA pizten du.

Zu zara betirako zabaldutako bidea...

Abestia:

<https://www.youtube.com/watch?v=pek63DvQND4>

- Zer aztarna utzi nahi duzu bide honetan?
- Nolakoa da Kristok nigan uzten duen aztarna?
- Lagundua sentitzen al naiz bide honetan?

Gogoeta:

ZURE GURUTZEA GURE GURUTZEA DA.

Garizumako lehen aste honetan, geure "gurutzearen" zamapean ekin diogu bideari; bidean aurrera egitea eragozten digun gurutzea da.



Paper batean idatziko dugu zein den ibilera arindu ahal izateko utzi nahi dugun "gurutze" hori eta ontzi batean (kaxatxo batean) utziko dugu ikasgelaren bazter batean, Nahi izanez gero, ozenki esateko aukera ematen dugu.

mar 10 astea

Ebanjelioa:

Espirituak, basamortuan barrena eraman zuen, deabruak tentatzen zuen bitartean

Ebanjelio Santuaren irakurketa San Lukasen arabera 4, 1-13

Jesus Espiritu Santuaz betea itzuli zen Jordandik. Espirituak eramanik, basamortuan barrena ibili zen berrogei egunez, deabruak tentatzen zuela. Egun haietan ez zuen ezer jan, eta azkenean gosetu egin zen. Deabruak esan zion, orduan:

–Jainkoaren Semea zarenez, agindu harri honi ogi bihurtzeko.

Jesusek erantzun zion:

–Liburu Santuan idatzia dago: Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi.

Ondoren, deabruak, toki garai batera eramanik, munduko erreinu guztiak erakutsi zizkion une batean eta esan zion:

–Hara, neureak ditut erreinu ahaltzu eta aberats guztiok eta nahi dudanari eman diezazkioket. Beraz, adoratzan banauzu, zeuretzat izango dituzu.

Jesusek erantzun zion:

–Idatzia dago: Adoratu Jauna, zeure Jainkoa, eta bera bakarrik gurtu.

Orduan, Jerusalemera eraman zuen deabruak eta, tenpluaren goreneko ertzera jasorik, esan zion:

–Jainkoaren Semea zarenez, bota zeure burua hemendik behera, idatzia baitago: Bere aingeruei aginduko die zu babesteko.

Besoetan eramango zaituzte, harriekin estropezu egin ez dezazun.

Baina Jesusek erantzun:

–Agindua dago: Ez tentatu Jauna, zeure Jainkoa.

Orduan, bere tentazio guztiak agorturik, deabruak alde egin zuen Jesusengandik, hurrengo egokiera bat arte.

Gogoetarako galderak:

- Zertaz dihardu Ebanjelio honek?
- Zer dira tentazioak?
- Zer tentazio izaten ditugu guk?
- Nola egin diezaiekegu aurre?

Bideoa: Egizu zure bizitzak distira dezala besteei lagunduz.

<https://www.youtube.com/watch?v=BeDqPfI2oOM>

- Zer esan nahi digu Bideoak?
- Zer ikas dezakegu bertatik?
- Zure ustez iritsi al gaitzke orain garena baino pertsona hobeak izatera?

Otoitza:

"Jainko maitea, Garizumako denbora berezi honetan, maitasunari eta hausnarketari buruz ikasten dugu. Lagun iezaguzu besteekin atseginak eta adikorrak izaten. Eman in-darra ongia egiteko eta egonarritsuak izateko. Barka ieazkiguzu geure akatsengatik, eta eskerrak ematen dizkiguzu zeure maitasun baldintzagabeagatik.

Berrogei egun hauetan, Jesusen sakrifizioa gogoratzen dugu eta nola irakasten digun apalak izaten. Lagun iezaguzu gutxiago daukatenekin partekatzen eta daukagunagatik esker onekoak izaten. Emaguzu jakituria zure hitza ulertzeko eta maitasuna zure irakas-kuntzak jarraitzeko.

Aita zerukoa, gida gaitzazu Garizumako bidaia honetan, eta sendotu ezazu gure fedea. Espiritualki hazi eta pertsona hobeak izan gaitezela. Zure Seme Jesukristoren izenean eskatzen dizugu.

Amen."

Gogoeta:

Garizuma garai berezia da, eta, abentura espiritual batean bezala, zuek, haurrok, gogoe-taren eta eskuzabaltasunaren balioa aurkitu dezakezue bertan. Erosotasun txikiei uko egitean, sakrifizioari buruz ikasten duzue, eta besteenganako errukiari bihotza zabaltzen diozue, hazten lagunduko dizueten funtsezko balioak landuz.

Abestia: Conviértete:

<https://www.youtube.com/watch?v=-b5lw4gCiok>

Gogoeta:

Pazkoaren aurreko berrogei eguneko denbora honek geure bihotzetan ontasunezko ha-ziak ereiten irakasten digu. Sakrifizio txikiak eta maitasunezko ekintzak egiten ditugu, eta horrela pazientziak eta besteei laguntzeak duten garrantziaz jabetzen gara. Ekint-za txikiek ere eragin handia izan dezaketela gogoratzen digu garizumak. Horrela, onta-sunean hazten gara, eta Pazkoa alaitasunez ospatzeko prestatzen gara.

Gogoeta:



- Zer desberdintasun ikusten dituzu irudi baten eta bestearen artean?
- Zure ustez beharrezko al da hainbeste aberastasun edukitzea zoriontsu izateko?
- Konturatzen zara kontzienteki bizitzan daukazun guztiaz?
- Jartzen zara zuk baino gutxiago daukan jendearen lekuan?

mar 17 astea

Ebanjelioa:

Otoitzean ari zen ari zen bitartean haren aurpegiaren itxura aldatu egin zen

Ebanjelio Santuaren irakurketa San Lukasen arabera 9, 28b-36

Hitzaldi honetatik zortziren bat egunera, Pedro, Joan eta Santiago berekin hartu eta mendira igo zen Jesus, otoitzera. Eta, otoitzean ari zela, aurpegiko itxura aldatu egin zitzaion, eta jantziak zuri distiratsu bihurtu. Hartan, bi gizon azaldu ziren, aintzaz distiratsu: Moises eta Elias, eta Jesusekin mintzo ziren Jerusalemen gertatzekoa zen honen heriotzaz. Pedro eta lagunak logaleak jota zeuden; baina esnatu ziren eta Jesusen aintza eta harekin zeuden bi gizonak ikusi zituzten. Haiek urruntzean, Pedrok esan zion Jesusi: «Maisu, zeinen ederki gauden hemen! Zergatik ez egin hiru etxola: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliaentzat?» Ez zekien zer esaten zuen ere. Eta, hori zioela, hodei batek estali zituen, eta beldurtu egin ziren hodeipean sartzean.

Mintzo hau irten zen hodeitik:

«Hauxe dut neure Semea, nik hautatua. Entzun berari!»

Mintzoaren ondoren, Jesus bakarrik ageri zen. Ikasleek isilean gorde zuten eta, ordukoz, ez zioten inori esan han ikusitakorik ezer.

Galderak:

- Zer erakusten digu Lukasek kapitulu honetan?
- Zein da zure ustez lerro hauek aldatzen duten otoitza?

Bideoa: Haurren etorkizuna...

<https://www.youtube.com/watch?v=aKcylKJYyNw>

... gure sakrifizio bakoitzak balio du.

Gugatik sakrifikatu al zen Jesus?

Otoitza:

Jauna, ez dezagula amets egin garaipen erosoekin, atseginez eta aintza mundutarrez beretiko bizitzarekin. Zeruko aintzaren argitasunera iritsi nahi badugu gurutzearen bidea egin beharko dugu, askotan bide ilun eta neketsua. Baina bide horretatik bagoaz, seguru gabilta! Orain zure gurutzeko sufrimenduak partekatzen ditugu. Baina gure antzaldaketako egun bedeinkatu hura iristen denean, gure zoriona eta gure aintza ia amaigabeak izango dira. Oraingoz, sufritu eta negar egin behar dugu, baina berriro ere guregana itzuliko zara eta zeurekin eramango gaituzu, eta gure tristura gozamen bihurtuko da. Eta orduan, gaurik eta ilunabarrik gabeko egun hartan, inork ezingo digu kendu geure poza.

Francisco Aita Santuaren Meditazioa

Garizuma denbora honetan, Elizak konbertsio ibilbide honen helburua adierazten digu, hau da, parte hartzea Kristoren aintzan, berarengan distiratzen baitu Zerbitzari zintzoaren aurpeiak, gugatik hila eta berpiztua.

Ebanjelioko orrialdeak Antzaldaketaren gertakizuna kontatzen digu, Jesusen ministerio publikoaren muturrean kokatzen dena. Bera Jerusalemeko bidean da, eta hantxe beteko dira "Jainkoaren Zerbitzariaren" ren profeziak eta burutuko da erredentzioko sakrifizioa. Jendetzak ez du hori ulertzen eta bertan behera utziko dute beren garaipen mundutarreko itxaropenak zapuzten dituen Mesias hori. [...]

Eta Jesus Zerbitzari egin zen Semea da, mundura bidalia, gurutzearen bidez salbazio proiektua gauzatzeko, gu guztion salbaziorako. Aitaren borondatearekiko erabateko atxikimendua, bere gizatasun gardena Jainkoaren aintzara itzultzen da, Maitasunera. Hala, Jesusek Aitaren irudi perfektua, haren aintzaren irradiazioa adierazten du. [...]

Egiazki, maitasuna gai da guztia aldatzeko, maitasunak dena aldatzen du. Horretan sinesten dugu? (S.S. Frantzisko Aita Santua, Angelus, 2015eko martxoaren 1a).

Abestia:


Munduko bakeari abesten diot...

John Lennon - *Imagine* [sub. Español]

"Imagine" bakeari, askatasunari eta tolerantziari kantatzen zaion abesti bat da. Modu polit bat geure umeei munduko hiritar gisa dauzkaten eskubideak azaltzeko eta elkar maitatzeak eta zaintzeak daukan garrantziaz hitz egiteko.

Gogoeta:

"Bizitzako itsasoan zabalduriko leiho bat, zeure barnearekin konektatzeko eta zeure oreka, bakea eta galdua duzun naretasuna berreskuratzeko." MariloliRuinervo Cabrera



mar 24 astea

Ebanjelioa: *Bihozberritzen ez bazarete, denok hilko zarete era berean*

Ebanjelio Santuaren irakurketa San Lukasen arabera 13, 1- 9

Une hartan, batzuek Jesusengana joan eta zenbait galilearri gertatua kontatu zioten: nola Pilatok hil zituen, eskaintzen ari ziren abereen odolarekin beraien odola nahastuz. Jesussek erantzun zien: «Galilear horiek gainerakoak baino bekatariago zirela uste al duzue, heriotza hori izan zutelako? Ez horixe! Eta zuek ere, bihozberritzen ez bazarete, berdin hilko zarete denok. «Eta Siloeko dorreak azpian harrapaturik hil ziren hemezortzi haiek, gainerako jerusalemdarrak baino bekatariago zirela uste al duzue? Ez horixe! Eta zuek ere, bihozberritzen ez bazarete, denok hilko zarete».

Pikondo agorraren parabola

Gero, parabola hau esan zien Jesussek: -Gizon batek pikondo bat zuen bere mahastian aldatua. Joan zen piku bila eta ez zuen aurkitu. Orduan, mahastizainari esan zion:

-Begira, badira hiru urte pikondo honetara piku bila natorrela, eta ez dut aurkitzen. Moztu ezazu. Zertarako egongo da hor lurra alferrik jaten?"

Baina mahastizainak erantzun zion:

-Jauna, utz ezazu aurtengoz; bitartean, ondoa aitzurtu eta ongarria botako diot, ea datorren urtean fruiturik ematen duen; eta bestela, moztu.

Bideoa: EL ARREBATO: JENDE ARGITSUA

https://www.youtube.com/watch?v=yJyMmjw_TcA

1. Itxi begiak eta pentsa ezazu zure eguneroko bizitza argitzen duten pertsona horiengan.
2. Eta zu, pertsona argitsu horietakoa al zara?

Otoitza:

*Guk biok daukagu une bakoitza
lehendabiziko goizeko
indar eta gogo berarekin
itxaroteko esperantza*

*Eskuak beti eskaintzea
zabalik eta ez itxita,
maitasuna ematen jakitea
begiradaren bidez.*

*Bizitza ematen ikastea,
itxarote luzea partekatzea,
fedea solidario egitea*

*Utopiekin amets egitea,
haiek gauzatzeko bizitza,
idealak eta justizia
lortzeko borrokatuz.*

*Besteekin ibiltzen jakitea
borroka komunitarioan,
gizaki guztiek bizi dezaten
bizitza humanoagoa*

*Besteentzat bizitza,
Jesusek irakatsi bezala,
Gurutzearen gainean
bizia emateraino.*

*Jainkoaren begiradarekin
Gauzei begiratuz bizitza,
Justizia, Bake eta Maitasunezko
Mundo berri bat egiteko.*

*Ea pentsa bide hau ibiltzea
erraza izango denik,
baina krisiek laguntzen dute
zentzua aurkitzen.*

*Gauzetan dagoen egia
ezkutaturiko altxor bat da.*

*Okerreko bidea hartzen duenak
agian galdua du bere bizitza.*

*Ebanjelioak erakusten dizu
zein den zuzeneko bidea,
Eta merezi du benetan
Jesukristori jarraitzea.*

*Guk biok daukagu une bakoitza
lehendabiziko goizeko
indar eta gogo berarekin
itxaroteko esperantza*

Marcelo Murúa

Galderak:

- Zure ustez posible al da mundu hobe eta zintzoago bat?
- Nola lagun dezakezu hori lortzen?

IPUINA:

Eguzkia zeruan barrena zebilen

Eguzkia zeruan barrena zebilen, alai eta harro bere suzko gurdian, bere izpiak alde guztietara jaurtiz, kasurik egin gabe trumoiaren umorea zeukan hodei baten haserreari:

- Zarrastela halakoa! Xahutzailea! Banatu, banatu heure izpiak. Ikusiko duk zenbat irauten diaten.

Mahastietan heltzen zen mahats ale bakoitzak minutuko izpi bat irensten zuen, eta inoiz bi ere bai; eta ez zegoen belar, armiarma edo lorerik, bere zatia hartzen ez zuenik.

-Utzi, utzi iezaiek dena lapurtzen: ikusiko duk nola eskertzen diaten, oparitzeko ezer gertatzen ez zaianean.

Eguzkiak pozik jarraitzen zuen bere bidean aurrera, bere izpiak milaka, milioika oparituz, zenbatu ere egin gabe. Ilunabarrera arte ez zituen zenbatu eta, gauza harrigarria! Orduan ohartu zen ez zitzaiola bakar bat ere falta. Hodeia, amorruez, kazkabar zaparrada bihurturik ezabatu egin zen. Eguzkia zoriontsu murgildu zen zeruertzen atzean.

Otoitza:

Bekaizti asko daude, besteak eskuzabalak direnean sufritzen duten horietakoak. Jauna, guk ez dezagula inoiz inbidiatu besteek egiten duten ongia, pozik eta alaitasunez imitatzeko saiatu baizik. Eskerrik asko, jauna, besteekiko eskuzabala den jendeagatik. Berekoi eta bekaiztien alde eskatzen dizugu orain, haiek ere eskuzabal izanez disfruta dezatela.

Gogoeta:

- ¿Zer iradokitzen dizu irudi honek?
- Zure ustez garrantzitsua al da ingurumena zaintzea?

Otoitza amaitzeko, eskerrak emango ditugu:

Eskerrik asko, jauna,
Zure Kreazioa zaintzeko ahalegin
guztiak bedekintzen dituzulako.

Bizi garen Lur honekin harreman
berri bat posible dela ulerrarazi diguzulako.

Eskerrik asko, jauna,
zure kreatura guztietan eta guztiekin goretsi zaitzakegulako.

Esker ona zuri oparitu diguzun guztiagatik
Eskerrik asko, jauna,
Zure proiektuaren partaide egiten gaituzulako.

Guztion Lurra zaintzeko eskatzen diguzulako.




TUTORETZA SAIOA

Denbora: 45 minutu

Motibazioa:

Helburua Pazkorako bidea eraikitzea da. Geure "motxila" bidea egiteko beharrezko den guztiaz betetzen jardun dugun aste hauen ondoren, haur bakoitzak baldosa pertsonal bat ekarriko du bide hori egiteko. (Baldosa horiek desberdinak izan behar dute).



Baldosak banatu ondoren, lehenengo zatia Gogoeta egitea izango da (denbora: 10-15 minutu gutxi gorabehera); bitartean, fondoko musikarekin, ikasleek orri batean idatziko dute:

1. Garizumako bidea egiteko, motxilan sartu dituen hiru balio.
2. Asteko momenturen bat norbaiten konpainia sentitu duteneko dena bertan behera uztera edo pazientzia galtzera zihoazenean.
3. Deserosoa gertatzen zaien balio, emozio edo bizipen bat.

(Musika proposamena gogoetarako:

<https://www.youtube.com/watch?v=BdIdJNMIULs>)

Jarraian, idatzi dituzten hiru aukeretako bat idatziko dute baldosaren atzeko aldean.

Baldosa hori dekoratuko dute eta korridore edo ikasgelako gune nabariren batean Pazkora eramango dituen bidea eraikiko dute.

AZKEN KONKLUSIOA

Lankidetzaz jardueraz amaitzeko, Garizumarekin eta aste hauetan egin duten bidaiarekin erlazionatzen duten hitzen bat bilatuko dute eta, dekoratu ondoren, klaseak eraiki duen bi-dearen ertzean kokatuko dute.

APIRILA

Hileko motibazioa: Lekukoak gara

api 1 astea

Motibazioa:

Pazkoko garai liturgikoan gaude, alaitasunez eta gozamenek betetako garaian, eta bihotza itxaropenez eta berrikuntzaz betetzen duguna. Pazkoan bizi dugun poza ez da guretzat bakarrik gorde dezakegun gauza bat. Hain da harrigarria, bizitzaz hain betea, ze inguruko munduarekin partekatu behar baitugu. Ezkutatu ezin dugun opari zoragarria da, gure barruan irazekita dagoen sugarra, eta beste batzuk ere sentitu ahal izatea nahi duguna. Argi hori gure ekintzen, hitzen eta jarreraren bidez zabaldu beharra daukagu.

Otoitza

Jaunarekin, esna gaitezen bizitzara.
Jesusekin, altxa ditzagun geure gorputz eroriak.
Kristorekin, esker diezaiozun Jainkoari
bere ahalmena eta garaipena.
Berpiztuarekin oihuka dezagun heriotza
jadanik ez dela heriotza, amaitzen den loa baizik.

BERPIZTU DA!

Gaur gaua, jadanik ez da gaua.
Dena edertasunez betea geratu da,
Ilunpetik argitasunera pasarazten gaituena,
Absurdutik zuhurtasunera,
Umiliaziotik aintzara,
Lurretik zerura,
Esklabotzatik askatasunera.

BERPIZTU DA!

Ez duzu ikusten? Ez duzu sentitzen?
Ez duzu entzuten? Ez duzu bizitzen?
Bai! Kristo berpiztu da! Aleluia!



Abestia

Nico Cabrera - Vives (ft. Verónica Sanfilippo)

<https://www.youtube.com/watch?v=xSgZvOy9EcE>

GOGOETA

Badira gauza batzuk isildu ezin direnak. Gauza garrantzitsuak partekatzeko dira. Adit-zera eman behar dugu Jesusen bihotza hain dela handia ze gugatik hil eta berpiztu zela. Jesusek berak Ebanjelioko Berri Onaren ahotsa izaten jarraitzera bidali zituen dizipuluak. Horregatik, historian zehar izan diren hainbat gizon eta emakume fededun bezala, geu ere Jainkoak digun maitasun hori aldarrikatzera deituak gaude.

Berpizkundea "misio" bihurtu da, orain guztion eginkizuna baita hura kutsatzea eta bizitzeta... Pazko zorientzua!

IRUDIA

Entzun ondo esaldi hau: "Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak!"

Horiek geu gara, ikusi gabe, apostoluen testigantzan sinesten dugunak, haiek, Berpizkundearen ondoren, Jesus ikusi eta berarekin egon baitziren!

IRAKURKETA

Ebanjelio Santuaren irakurketa San Joanen arabera 20, 1-9

Ebanjelio Santuaren irakurketa San Joanen arabera 20, 1-9

Asteko lehen egunean Magdalako Maria hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen.

Orduan, Simon Pedrorengana eta Jesussek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien:

-Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez da kigu non ipini duten.

Irten ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea eta hilobirantz jo zuten. Biak batera zi-

hoazen korrika, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira.

Barrura begiratzeko makurturik, oihal zerrendak lurrian zeudela ikusi zuen, baina ez zen sartu. Iritsi zen haren atzetik Simon Pedro eta sartu zen hilobira. Oihal zerrendak lurrian ikusi zituen, baita Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; baina hura ez zegoen oihal zerrendekin batera jarria, beste toki batean aparte bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen. Izan ere, ordu arte ez zuten ikasleek ulertu Liburu Santuak dioena, Jesus hildakoen artetik piztu behar zuela, alegia.



api 7 astea

Motibazioa:

Jesusen Pazkoa ikustea poztasunik handienez murgiltzea da, bihotzari esker onaren kanti-
ka abesten uztea. Itxaropena beti loratzen dela eta Jesusen berpizkundea biziak eraldatzen
dituen pozaren iturri agortezina dela onartzea da. Pazko alaitasun honek argitu dezala gure
bidea!

Otoitza

Zu, jauna, nire poza zara
partekatzen eta neuretik zerbait ematen dudanean,
besteen ongiaren bila saiatzen nazenean,
adiskidetzera bilatzen ahalegintzen banaiz.

Zu, jauna, nire poza zara
gaizkiaren eta gezurraren aurka borrokatzen banaiz,
lan ona egiten saiatzen banaiz,
eguneroko gauza txikietan lan egiten badut.

Zu, jauna, nire poza zara
bakea eskaintzen eta jasotzen badut
munduan Zure alde jartzen banaiz
neure bihotzaren ontasuna zaintzen badut

Zu, jauna, nire poza zara
ez naizelako nitaz esango dutenaren beldur,
kristaua naizela aitortzen dudalako
zoriontsua naizelako zure laguna izateagatik
naizena zuri esker naizelako, Jauna
Nik sinetsi, espero, bizi eta ibili
Zugan eta Zugatik egiten dut, Jauna
Amen

Ebanjelio

Santuaren irakurketa San Joanen arabera. Jn 20, 19-31

Asteko lehen egun hartan bertan, arratsean, ikasleak etxe batean bildurik zeuden; ju-
du-agintarien beldurrez, ateak itxirik zeuzkaten.

Sartu zen Jesus eta, erdian jarriarik, agurtu zituen esanez:

–Bakea zuei.

Gero, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Pozez bete ziren ikasleak Jauna kustean.

Jesusek berriro esan zien:

–Bakea zuei. Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet.

Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien:

–Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei barkatu egingo dizkie
Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die.

Tomas, Hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean.

Elkartu zirenean, beste ikasleek esan zioten:

–Jauna ikusi dugu.

Tomasek erantzun zien:

–Haren eskuetan iltzeen seinalea ikusten ez badut, eta nire atzamarra iltze zuloetan eta nire eskua haren saihets zuloan sartzen ez badut, ez dut inola ere sinetsiko.

Zortzi egunen buruan, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere bertan zen. Ateak itxirik zeuden arren, sartu zen Jesus eta, erdian jarriarik, agurtu zituen esanez:

–Bakea zuei.

Gero, esan zion Tomasi:

–Ekarri atzamarra eta aztertu nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihets zuloan. Eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik.

Tomasek erantzun zion:

–Ene Jauna eta ene Jainkoa!

Jesusek esan zion:

–Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak.

Mirarizko beste seinale asko egin zituen Jesusek bere ikasleen aurrean, liburu honetan idatzirik ez daudenak.

Hemen kontatuak Jesus Mesias eta Jainkoaren Semea dela sinets dezazuen idatzi dira eta, sinetsiz, betiko bizia izan dezazuen hari esker.

T: Gogoratu beti Jesusen presentzia, eta ez dakizuen gerta niri bezala, maitatu, sinetsi eta Bakearekin alaitu egin behar duzue.

Irakurri ondoren, une batez gogoeta egingo dugu isiltasunean, eta Berpizkundearen poz-tasunari bide emango diogu.

Benetan sinesten badugu Jesus berpiztu egin zela, gure poza hain izango da handia, ezen ezingo baitugu isilean gorde.

Abestia

Jackson Gómezen "Somos la vida".

Abestia

"Somos la vida" de Jackson Gómez.

<https://www.youtube.com/watch?v=zJL-1vS5Qaqk>

Dinamika

Poztasun hori adierazteko formula, «Itxaropenaren telefonoa edo Berpizkundearen telegrama»: Haurrek esaldi bat esan behar diote belarriari, alboan daukaten lagunari berpizkundeagatik daukaten zoriona transmitituz, eta gero bakoitzak taldeari esan behar dio entzun duen esaldia.

Imagen

Nor egokiago geure poza partekatzeko?



api 14 astea

Motibazioa:

Jesusen Pazkoa geure barne-barnean aldaketa sakon bat bizi izatera garamatzen gertaera bat da. Jesusen berpizkundeari buruz gogoeta egiten dugun bakoitzean, gure barnean berritze eta eraikitze prozesu bat hasten baita. Gure oinarri espiritualak indartuko balira bezala da egia hauen segurtasunarekin: bizitzak heriotza garaitu duela, itxaropenak etsipena ezabatzen duela eta maitasunak edozein itzal barreiatzen duela.

IRAKURKETA

Ebanjelio Santuaren irakurketa San Joanen arabera. Jn 21,1-19.

Geroxeago, berriro agertu zitzaien Jesus bere ikasleei Tiberiades aintzira-ertzean. Honela gertatu zen agerpena: Elkarrekin zeuden Simon Pedro, Tomas -Bikia zeritzana-, Natanael -Galileako Kanakoa-, Zebedeoren semeak eta beste bi ikasle.

Hortan, Simon Pedrok esan zien:

-Arrantzara noa.

Besteek erantzun zioten:

-Zurekin goaz gu ere.

Irten eta ontziratu egin ziren. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu.

Eguna argitu zuenean, aintzira-ertzean agertu zen Jesus; baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela.

Jesusek esan zien:

-Mutilok, baduzue jatekorik?

Haiek erantzun:

-Ez.

Jesusek esan zien:

-Bota sarea txaluparen eskuinera eta aurkituko duzue.

Hala egin zuten. Eta hainbeste arrain harrapatu zuten, ez ziren sarea ateratzeko gauza.

Orduan, Jesusek maite zuen ikasle hark esan zion Pedrori:

-Jauna da.

Simon Pedrok, Jauna zela entzun bezain laster, soinekoa jantzi (erantzia baitzuen) eta salto egin zuen uretara. Gainerako ikasleak txalupaz joan ziren, sarea arrainekin tiraka zekartela, lehorretik hurbil baitziren, ehunen bat metrora. Lehorreratzean, su-txingarrak ikusi zituzten, gainean arrain bat zela, eta ogia. Jesusek esan zien:

-Ekarri harrapatu berri dituzuen arrainetariko batzuk.

Igo zen ontzira Simon Pedro eta lehorrera atera zuen sarea, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz betea. Eta, hainbeste izanik ere, ez zen sarea apurtu. Jesusek esan zien:

-Etorri gosaltzera.

Ikasleetako inor ez zen ausartzen nor zen galdetzera, ongi baitzekiten Jauna zena. Orduan, Jesusek, hurbildurik, ogia hartu eta eman egin zien, baita arraina ere. Hirugarren aldia zen hau, Jesus, hildakoen artetik piztu ondoren, bere ikasleei agertzen zitzaiena. Gosaldu zutenean, Jesusek esan zion Simon Pedrori:

-Simon, Joanen semea, maiteago al nauzu hauek baino?

Hark esan zion:

-Bai, Jauna, badakizu maite zaitudana.

Orduan, Jesusek:

-Larra itzazu nire bildotsak.

Bigarrenenez galdetu zion Jesusek:

-Simon, Joanen semea, maite al nauzu?

Pedrok, berriro:

-Bai, Jauna, badakizu maite zaitudana.

Jesusek, orduan:

-Zaindu nire ardiak.

Hirugarrenez galdetu zion Jesusek:

-Simon, Joanen semea, maite al nauzu?

Pedro goibeldu egin zen maite al zuen hirugarrenez galdetu ziolako, eta erantzun zion:

-Jauna, zuk dena dakizu, zuk badakizu maite zaitudana.

Orduan, esan zion Jesusek:

-Larra itzazu nire ardiak.

Bene-benetan diotsut: Gazteago zinenean, zeuk lotzen zenuen gerrikoa eta nora joan erabakitzen; zahartzean, ordea, zuk besoak luzatu eta beste batek lotuko dizu gerrikoa eta nahi izango ez duzun lekura eramango zaitu.

Horrela, Jainkoari aintza zer-nolako heriotzaz emango zion adierazi zuen Jesusek. Ondoren, esan zion:

-Jarraitu niri.

Dinamika

Familia handi bat garenez, gauzak elkarrekin egitea gustatzen zaigu Pazkoa ospatzeko.

Ospakizun xume bat egingo dugu, Pazkoak guretzat izan dezakeen garrantzia ikusteko:

KRISTO BERPIZTU DELAKO...

Goizero jaikitzea oso desberdina izango da, jakinik Berak edozein lekutan, edozein egoeratan itxaroten digula.

KRISTO BERPIZTU DELAKO...

Familiarekin, bizilagunekin, lagunekin eta lankideekin topo egitea "oparia" izango da, Bera presente dagoelako horietako bakoitzean.

KRISTO BERPIZTU DELAKO...

Estudiatzea ez da izango ikasturtea gainditzeko bakarrik, baizik eta batez ere adimena eta espiritua zabaltzeko, eta Berak gutako bakoitzean jartzen dituen talentuak hobeki partekatzeko.

KRISTO BERPIZTU DELAKO...

Irribarre egitea jarduera sendagarri bihurtzen da, bihotz berpiztu batetik sortua izango delako.

Ebanjelioaren bidez ohartzen gara Jesusen Berri Onaren lekuko garela, eta inguruan ditugun bizi zantzu guztiak Jesusi buruz mintzo zaizkigula.

Abestia

"El amor venció" (Maitasunak garaitu du) Unai Quirós

https://www.youtube.com/watch?v=sNwt8JCP_YE&t=31s

Historia

La historia del petirrojo (Txantxangorriaren istorioa)

https://www.youtube.com/watch?v=hC4y6Nua_rY

IRUDIA

Fedean birjaiotzen: Berpizkundearen Alaitasunerantz Igerian.



api 21 astea

Motibazioa:

Pazkoak bihotza asaldatzen digu, gogoraraziz heriotzak ez duela azken hitza, itxaropena etsipena baino indartsuago dela eta maitasunak gorrotoa garaitzen duela. Ideia hori izan daiteke gure pertzepzioak eta lehentasunak dardarazten dituen lurrikara emozional bat, eta eraman gaitzake hausnarketa bat egitera bizitzan benetan balioesten dugunari buruz.

IPUIN GERTATUA

Pazkoa eta Mutiko baten Jakinduria

Jeremy gorputzez elbarria zen eta adimen motzekoa. Hamabi urte zituela, artean Lehen Hezkuntzako bigarren mailan zegoen, eta ez zuen aurreratzeko seinalerik ematen. Bere maistra, Doris Miller, sarritan sumindu egiten zen berarekin, askotan bere jarlekuan makurtu eta garrasika jarduten baitzuen. Beste batzuetan argi eta zehatz hitz egiten zuen, bere garunaren iluntasunean argi izpi bat sartu balitzaio bezala. Dena dela, ia denbora guztian Jeremyk haserrea eragiten zion.

Egun batean, irakasleak Jeremyren gurasoei deitu zien, eta tutoretza baterako ikustera joateko eskatu zien. Forrestertarrak klase hutsean sartu zirenean, Dorisek esan zien: "Jeremyk benetan behar duena eskola berezi bat da. Ez da ona ikasteko arazorik ez duten haurrekin edukitzea. Bost urteko aldea dago bere adinaren eta bere gelako gainerakoen artean." Forrester Andrea, zapi bat atera eta negarrez zegoen isilik, senarrak hitz egiten zuen bitartean: "Miller Andereñoa, ez dago zuk diozun mota horretako eskolarik inguruan. Kolpe izugarria izango litzateke Jeremyrentzat eskola honetatik atera beharko bagenu. Badakigu hemen egotea gustatzen zaiola." Doris luzaroan egon zen eserita, haiek alde egin ondoren, leihotik landa elurtuari begira. Bazirudien kanpok hoztasuna arimaraino sartzen zitzaiola. Forrestertarrekin atsegina izan nahi zuen. Haien seme bakarrak gaixotasun terminal bat zeukan. Bestalde, ez zen egokia ikasgelan mantentzea. Berak beste 18 haur zituen eskolak emateko, eta Jeremy oztopo bat zen horretarako. Gainera, ez zuen inoiz ikasiko ez irakurtzen eta ez idazten; beraz, zertarako galdu denbora ahalegin horretan? Egoera aztertzen zuen bitartean, erruduntasun sentimendu bat nagusitu zitzaion. "Hemen nago ni, protestaka, nire arazoa familia errukarri horrenarekin alderatuta hutsaren hurrengoa denean", pentsatu zuen. "Mesedez, jauna, lagun iezadazu Jeremyrekin pazientzia edukitzean."

Egun horretatik aurrera, Jeremyren orroei eta haren begirada inozoei ezikusia egiten saiatu zen. Egun batean, Jeremy mahaira hurbildu zitzaion bere hanka elbarria arrastaka zuela: "Maite zaitut, Miller andereñoa", aitortu zion, klaseko guztiak entzuteko bezain ozenki. Ume guztiek barre txikiak egin zituzten eta maistra lotsagorritu egin zen. Ahapeka esan zion: "Zeee...zer? Eskerrik asko, Jeremy. Orain, itzul zaitez zeure lekura, mesedez".

Udaberria iritsi zen, eta haurrek gogotsu hitz egiten zuten pazkoaren etorreraz. Dorisek Jesusen Historia kontatu zien, eta bizitza berri batera jaiotzearen ideia argiago eduki zezaten, plastikozko arrautza handi bana eman zien haur guztiei. "Orain, etxera eraman dezazuen nahi dut, eta bihar bueltan ekarriko duzue, bizitza berria adieraziko duen zerbaitekin. Ulertu duzue?". "Bai, Miller andereñoa", erantzun zuten haurrek gogotsu, Jeremyk izan ezik. Hura ere adi-adi egon zen entzuten maistrak esaten zuena ulertuko balu bezala. Begirada finko mantendu zuen maistraren aurpegian, bere ohiko zaratarik ere egin gabe. Ulertu ote zuen mutilak Jesusen heriotzari eta berpizkundeari buruz berak azaldutakoa? Ulertu ote zuen biharamunerako agindu zien lana? Badaezpada, gurasoei deitzea eta proiektua azaltzea izango zen onena.

Arratsalde hartan, Dorisen sukaldeko harraska buxatu egin zen. Iturginari deitu zion eta ordubete eman zuen hura etorri zain. Gero merkatura Joan zen erosketa batzuk egitea, blusa bat lisatu zuen eta biharamunerako hiztegi azterketa prestatu zuen. Erabat ahaztu zitzaion Jeremyren gurasoei deitzea.

Hurrengo goizean, 19 haur iritsi ziren eskolara, barrez eta berriketan eta maistraren mahai gainean zegoen zumezko saskian utzi zituzten beren arrautzak. Matematikako saioa amaitu ondoren, arrautzak irekitzeko unea iritsi zen. Lehenengo arrautzan, Dorisek lore bat aurkitu zuen. "O, bai. Lore bat bizitza berriaren adierazgarria da. Landa-reak loratzen direnean, badakigu udaberria iritsi dela". Lehenengo ilaran zegoen neska txiki batek besoa astindu zuen. "Hori nire arrautza da, andereño". Hurrengo arrautzan plastikozko tximeleta bat zegoen, ia benetakoa zirudiena. Dorisek altuan mantendu zuen: "Beldarra aldatu eta tximeleta eder bihurtzen da. Bai, bizitza berria iragartzen du". Judy txikiak harro-harro esan zuen, "Andereño Miller, hori nirea da". Hurrengoan, goroldioa zeukan harri bat aurkitu zuen Dorisek. Goroldioak harri batean ere sortzen den bizitza esan nahi zuela azaldu zuen. Billyk gelaren atzealdetik altxatu zuen ahotsa: "Aitak lagundu zidan", esan zuen irribarretsua. Dorisek beste arrautza ireki zuen, eta kontrolatu egin behar izan zuen, desilusio keinurik ez egiteko. Arrautza hutsik zegoen. "Egingo nuke Jeremyrena dela, pentsatu zuen, noski, ez ditu nire azalpenak ulertu. Gurasoei telefonoz deitzea ahaztu ez balitzait..." Mutilari une txar bat ez pasarazteko, kontu handiz jarri zuen arrautza alde batera eta beste bat zabaltzera zihoan. Bat-batean, Jeremyk esan zuen: "Andereño Miller, ez duzu nire arrautzaz ezer esan behar?".

Dorisek harrituta erantzun zion: "Baina Jeremy, zure arrautza hutsik dago". Denek barre egin zuten. Mutilak begietara begira, ahots apalez erantzun zion: "Bai, baina Jesusen hilobia ere hutsik zegoen". Denbora gelditu egin zen. Dorisek, berriro hitz egiteko gai izan zuenean, galdetu zion: "Badakizu zergatik zegoen hilobia hutsik?". "Bai horixe. Jesus hil eta barruan jarri zuten. Baina hura piztu eta hilobitik alde egin zen. Horregatik zegoen hutsik hilobia".

Jolas ordua adierazteko kanpaiak jo zuen eta, haurrak ikastetxeko patiora korrika zihoazen bitartean, Dorisek negar egin zuen. Bere barneko hotza erabat desagertu zitzaion. Gero, haur guztiei azaldu zien irabazlea Jeremy izan zela, eta zergatik.

Handik hiru hilabetera, Jeremy hil egin zen. Dolu-minak adieraztera joan zirenak harritu egin ziren hilkutxan 19 arrautza ikustean. Denak hutsik.



Abestia

Chiflado por ti. Unai Quirós.

<https://www.youtube.com/watch?v=ENlyfTV-J6ys&t=4s>

IRUDIA

Hartu nire eskua, kontatu nirekin.

Dinamika

LAGUN IKUSEZINA

Irakasleak haur guztien izenak idatziko ditu txartel banatan eta kaxatxo batean sartuko ditu. Ikasleak txartel horiek atereaz joango dira, eta bakoitzak, egokitu zaionari bere adis-kidetasuna adierazi behar dio detaileren batekin: gutun bat, marrazki bat... Jolasaren alderdirik interesgarriena da lagunak ikusezinak direla, eta horrexegatik disimulu handiz jokatu behar dute. Egunaren amaieran detaileak bateratu daitezke, eta irakasleak irudimen gutxien erakusten duten haurrak orientatu eta animatu ditzake. Jarduerak iraun dezake irakasleak egoki deritzona.

JOKOA

PAZKO ERROSKA

https://es.educaplay.com/Baliabideak-educativos/5373930-rosco_de_pascua.html

api 28 astea

Aste honetan oso hilabete polit bati ematen diogu hasiera, geure Ama Onagandik hurbilago egoteko aukera izango baitugu. Aprobetxatu egunero gauza politak esateko, gure lana eta otoitzak eskaintzeko eta gure asmoak haren esku jartzeko. Berak jakingo du nola helarazi bere Seme Jesusi. Badaki nola iritsi Jesusen bihotzera.

Otoitza

Andre Maria maitea, ama bihozbera eta graziaz betea, maiatzaren hasieran, zu bezalakoak izaten irakasteko eskatzen dizugu.

Laguntzeko eta maitatzeko prest dauden haurrak izan nahi dugu, zuk Jesusen Jaiotzaren berri zoragarria partekatu zenuen bezala,

gure bihotza zure eskuzabaltasunaren isla izan dadila
eta beti prest egon gaitezela poztasunak
eta besteekiko kezka partekatzeke,
argia eta maitasuna geure ingurura eramanez.

Amen.

Abestia

Madre, Hakuna

<https://www.youtube.com/watch?v=IAWBMtzetAk>

Mariaren aurkezpen laburra.'

Maketaziorako argibideak:

(fitxategia irudien karpetan dago)

Irakurketa

Handik sei hilabetera, Jainkoak Gabriel aingerua bidali zuen Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena, eta Jose zeritzan Dabiden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzeman zegoen. Aingeruak, Mariarenean sarturik, esan zion:

–Agur, Jainkoaren gogoko hori! Jauna zurekin.

Hitz haiek entzutean, ikaratu egin zen Maria eta agur horrek zer esan nahi ote zuen galdetzen zion bere buruari. Aingeruak esan zion:

–Ez beldurtu, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. Hara, haurdun gertatuko zara, semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena. Handia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta bere aita Dabiden tronua emango dio Jainko Jaunak. Israel herriko errege izango da betiko, eta beraren erregetzak ez du azkenik izango.

Mariak esan zion aingeruari:

–Baina nola gerta daiteke hori, ez bainaiz gizon batekin bizi?

Aingeruak erantzun zion:

–Espiritu Santua etorriko da zuregana eta Goi-goikoaren indarrak hodeiak bezala

estaliko zaitu; horregatik, zuregandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Begira, Elisabet zure lehengusina ere haurdun gertatu da bere zaharrean eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinezkorik.

Orduan, esan zuen Mariak:

–Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan bezala.

Eta aingeruak utzi egin zuen.



Imagen



MAIATZA

Hileko motibazioa: Hemen gaude

mai 5 astea

Motibazioa:

Al contemplar la figura de María, somos desafiados a abrir nuestros corazones y a decir "sí" a las oportunidades de servicio y amor que se presentan en nuestras vidas. En María encontramos no solo una madre de Jesús, sino una guía y maestra en el camino de la disponibilidad y el servicio al prójimo.

Otoitza

Santa Maria, lagun hurbhileko eta errukiorra,
gure bihotzak gupida eta adiskidetasunerako bidean gidatzeko
eskatzen dizugu. Zugandik ikasi nahi dugu lagun leialak izaten
eta haur bakoitza onartua eta maitatua sentituko den
ingurune bat eraikitzen, zuk denak maitasunez onartu zenituen bezala.

Egin gaitzazu zure bakerako eta maitasunerako tresna,
eskua luzatuz lagun bat behar dutenei
eta adiskidetasun zintzoaren poza partekatuz.

Amen.

Abestia

Contigo, María. Athenas.

<https://www.youtube.com/watch?v=kkVtd-kam6A>

Irakurketa

Lukas 1:39-56

Mariak Elisabeti ikustaldia

Aingeruagandik berria jaso ondoren, Maria, Elisabet lehengusina bisitatzera doa, hark ere seme bat espero baitu. Pasarte honetan Mariaren poza eta apaltasuna nabarmentzen dira, baita besteei laguntzeko prestasuna ere.

Handik egun batzuetara, Maria etxetik atera eta Judeako mendialdeko hiri batera joan zen arin-arin, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun bezain laster, Elisabeti punpaka hasi zitzaion haurra sabelean. Une berean, Espiritu Santuaz beterik gelditu zen Elisabet, eta goraki esan zuen: «Bedeinkatua zu emakume guztien artean eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua! Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, pozez punpaka hasi zait haurra sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Orduan, Mariak esan zuen:

Orduan, Mariak esan zuen:

«Jaunaren handitasuna dut goresten,
pozaren pozez daukat barrena,
Jainkoa baitut salbatzaile.

Bere mirabe ezerez honengan jarri ditu begiak;
horregatik, dohatsu deituko naute guztiek gaurdanik.

Gauza handiak egin ditu nire alde Ahalguztidunak.

Santua da eta gizaldiz gizaldi errukitsua
begirune diotenentzat.

Bere indar guztiaz jokatu du: Buru harroak suntsitu ditu,
ahaltsuak goi postuetatik bota eta ezerezak gora jaso;
ondasunez bete ditu goseak zeudenak,
eta esku-hutsik bidali aberatsak;
lagun etorri zaio bere herri Israeli,
bere errukiaz oroiturik:
hala hitzemana zien gure arbasoei, Abrahami
eta ondorengoei betiko».

Mariak hiruren bat hilabete egin zituen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.


Jainkoaren Hitza.

Gurutzegrama

Un ángel visita a María

Quedarás encima y darás a luz un hijo, y le pondrás por nombre Jesús.
Lucas 1:31 (NVI)

Este crucigrama está basado en Lucas 1:31 (NVI)



HORIZONTAL

1. Ser celestial; el mensajero de Dios.
4. Mujer pura o que no está casada; doncella.
7. Nación o territorio gobernado por un rey o reina.
8. Unirse en matrimonio como hombre y mujer.

VERTICAL

2. Nombre de ángel que le apareció a María.
3. Persona muy joven entre la infancia y la juventud.
5. Pánico, temor.
6. El hijo que tuvo María.

mai 12 astea
Motibazioa:

Mariaren bizitzan, zerbitzu eredu dinamiko eta leiala aurkitzen dugu. Beharrezko denean ekimena bere gain hartzeko gaitasuna du, beti Jainkoaren nahiaren aldeko jarreran mantenduz, pertsona aktiboak izatera garamatza, ausardiaz eta maitasunez jarraitzeko Jainkoak izatera eta egitera deitzen diguna.

Otoitza

Ama Maria, pazientzia eta sendotasun eredua,
maiatzeko hirugarren aste honetan, hau eskatzen dizugu:
zu bezala paziente eta indartsuak izateko inspirazioa izatea.

Konfiantzaz itxaroten eta egun bakoitzari irribarrez aurre egiten ikasi nahi dugu,
zuk zeure bizitzako etapa bakoitzean egin zenuen bezala.

Eman pazientzia gure bihotzei erronkak gainditzeko
eta gure fedean eta balioetan tinko eusteko indarra,
Jainkoaren borondatean duzun konfiantzaren ereduari jarraituz.

Amen.

Abestia

Madre. Athenas.

<https://www.youtube.com/watch?v=L5gfdnEcxlU>

Ama Abestiaren Hitzak

Zure ondoan, Maria, ume bat bezala, nahi dut egon,

har nazazu zeure besoetan, gida nazazu.

Hezi nazazun, errezatzen irakastea nahi dut.

Egin nazazu garden, bere nazazu bakez.

Ama, ama

Ama, ama

Ama, ama

Ama, ama

Eskerrik asko, ama, Jesusengana eramateagatik,

egin gaitzazu apalagoak, zu bezain xumeak.

Eskerrik asko, ama, bihotza irekitzeagatik.

elkartzen eta zure maitasuna ematen diguzulako.

Ama, ama

Ama, ama

Ama, ama

Ama, ama

Irakurketa

Joan 2:1-11 (Kanako ezteiak). Pasarte honetan, Mariak Kanako ezteietan parte hartzen du, Jesusi ardoarekin laguntzeko eskatzean. Jesusek lehen miraria egingo du, ura ardo bihurtuz. Mariak bestetik duen ekimena eta ardura erakusten ditu pasarte honetan.



Hiru egunera, ezteiak izan ziren Galileako Kanan, eta han zen Jesusen ama.

Jesus eta beronen ikasleak ere gonbidatu zituzten ezteietara. Eta ardoa amaitu baitzen, esan zion amak Jesusi:

-Ez dute ardorik.

Jesusek erantzun zion:

-Utz nazazu bakean, emakume. Oraino ez da etorri nire ordua

Jesusen amak honela esan zien zerbitzariiei: «Egin horrek esango dizuen».

Baziren han harrizko sei ur-ontzi, juduek beren garbikuntzetarako erabili ohi zituztenak, ehunen bat litrokoa bakoitza.

Jesusek esan zien zerbitzariiei:

-Bete ontziak urez.

Haiek goraino bete zituzten. 8 Orduan, esan zien:

-Atera pixka bat eta eraman mahaizainari.


Hala egin zuten haiek.

Mahaizainak ardo bihurtutako ura dastatu zuen, nongoa zen jakin gabe; zerbitzariak, bai, bazekiten, beraiek atera baitzuten ura. Ardo berria dastatu zueneko, senarrari dei egin eta esan zion: «Jende guztiak ardorik onena atera ohi du lehenik eta, jendea aski edanda dagoenean, arruntagoa; zuk, berriz, orain arte gorde duzu ardorik onena».

Bere lehen mirarizko seinale hau Galileako Kanan egin zuen Jesusek; honela, bere Jainko aintza agertu zuen, eta ikasleek sinetsi egin zuten harengan.

Jainkoaren Hitza.

Irudia



mai 19 astea
Motibazioa:

Ikasturteko azken etapa honetan nekea ez dadila oztopo izan besteen aldeko zerbitzu ekimena bizirik mantentzeko, gure Ama Onaren eredu iradokitzaileari jarraituz. Maitasun eta laguntza jestu txiki bakoitza, adibidez, lagun bat animatzea, behar duen kide bati laguntza eskaintzea edo irribarre bat partekatzea, Mariaren bideari jarraitzeko modu xume baina botoratsuak dira.

Otoitza

Birjina Maria, maistra jakintsu eta maitekorra. Maiatzeko laugarren aste honetan, ezagutza eta jakinduria bilatzeko inspirazioa eskatzen dizugu. Zuk Jesus heztean egin zenuen bezala ikasi eta hazi nahi dugu. Lagun iezaguzu ikaskuntzaren garrantzia baloratzen eta ikasten duguna aplikatzen mundua leku hobea izan dadin. Gure bihotzak ikasteko prest egon daitezela, eta guztion onerako ekarpenak egin ahal izan ditzagula jakinduriatz eta maitasunez.

Abestia

María mírame

<https://www.youtube.com/watch?v=KZpTMZy65y8>

Irakurketa

Lukas 2,41-52 (Jesus Haurra Tenpluan). Hemen Maria ama kezkatu eta arduratsu gisa aurkezten zaigu. Maria, ama gisa, ez zen gelditu aurkitu zuen arte. Mariari eskatuko diogu, beraz ahazten garenean, bila gaitzala.

Jesusen gurasoak Jerusalemara joan ohi ziren urtero erromes Pazko jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituen, jaietara joan ziren, ohi bezala. Jaiak amaiturik gurasoak etxera abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalem gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromeskideen artean zelakoan egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren ahaide eta ezagunen artean. Eta, aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemara itzuli ziren bila.

Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, lege maisuen erdian eseria, entzun eta galde; entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Ikusi zutenean, harrituta gelditu ziren gurasoak, eta amak esan zion:

–Seme, zergatik egin diguzu hau? Ikusi zeinen larri genbiltzan aita eta biok zure bila!


Hark erantzun zien:

–Zergatik zenbiltzaten nire bila? Ez al zenezkiten nik neure Aitaren gauzetan jardun behar dudala?

Baina haiek ez zuten ulertu zer esan nahi zuen. Jesus beraiekin Nazaretera jaitsi eta beraien menpe bizi izan zen. Amak gogoan hartzen zituen gertakari guztiok.

Jesus haziz zihoan, bai jakinduriatz, bai gorputzez, eta Jainkoak eta gizakiek gero eta gogokoago zuten.

Jainkoaren Hitza.



Mariaren Bizitza

Amabirjinaren bizitzari buruzko binetak. Karta gisa erabil daitezke, edota inprimatu, koloretatzeko.

Amabirjinaren bizitza 1 Jaiotza bere guraso Joakin eta Anaren ondoan. 2 Mariaren aurkezpene tenpluan 3 Anuntziarioa 4 Isabeli ikustaldia 5 Haurtxo Jesusen jaiotza 6 Egiptora ihesi 7 Jesus Haurra tenpluan aurkeztua 8 Nazareteko bizitza 9 Jesus Haurra galdua eta tenpluan aurkitua 10 Kanako ezteiak 11 Jesus gurutziltzatua eta hila 12 Mendekoste 13 Jasokundea 14 Mariaren koroazioa zeru-lurretako Erregina



mai 26 astea
Motibazioa:

Maria bezala, geu ere izan gaitezke geure lankideentzat ontasun, adiskidetasun eta laguntza eragileak. Begiratu ez ezik, ikusi egin behar dugu zein den gure behar handiena duten lekua. Eguneroko heroi txikiak izango gara, "Kontatu nirekin" esanez.

Otoitza

Santa Maria, leialtasunaren eta debozioaren eredu zaren hori,
maiatzeko azken astean laguntza eskatzen dizugu
Gure lanak arretaz eta maitasunez bete nahi ditugu,
Zeuk ere Jainkoaren borondatea bete zenuen bezala.

Gure leialtasuna ongiarekiko eta justiziarekiko
daukagun konpromisoaren lekuko izan dadila.

Eta eta zure ereduari jarraitu ahal izan diezaioguna
Jainkoari eta lagun hurkoari
maitasunez zerbitzatuz. Amen.

Abestia

Hágase, Migueli

https://www.youtube.com/watch?v=5wS_20ZKtRO

Dinamika

"MARIA: GUZTION AMA": Maiatzean gaude, loreen hila, ama guztien hila eta, jakina, gu guztion amaren, Amabirjinaren hila. Ondo dakizuenez, Maria, Jesusen ama, Nazareten bizi zen. Maiatzak guretzat daukan garrantzia ospatzeko, opari bat egingo diegu etxeko amari eta zeruko amari. Horretarako, kartoi mehe berde bat behar dugu, eta beste bat, nahi duzuen kolorekoa. Berdea ez den kartoi mehearen gainean geure eskua marraztuko dugu, ebaki eta gure loreen zurtoina eta orriak kartoi mehe berdean marraztuko ditugu. Zurtoina oso erraza da: egin behar den guztia kartoi mehezko zerrenda bat ebakitzea da. Dena itsatsiko dugu, eskua lorea balitz bezala, eta kartoi mehe berdezko zerrenda zurtoina izango da... eta gure loreak prest ditugu.



Maria pasahitza

Amabirjinari buruzko bi Pasahitz eredu.

Egokia inprimatzeko eta taldeka jokatzeko.

A- Amabirjinarentzako otoitza, Aingeruaren hitzak jasotzen dituen a - AGUR MARIA

B- Mariaren semearen jaioterria - BELEN

C- Nola hil zen Mariaren semea? - GURUTZILTZATUA

D- Kristauen jaieguna - IGANDEA

E- Zerezkoa zen Mariaren semeari jarri zioten koroa? - ARANTZAZKOA

F- Nola sentitu zen Maria Jesusez haurdun zegoela jakitean? - ZORIONTSU.

G- Mariari haurdun zegoela iragarri zion aingerua - GABRIEL

H- Nor zen Mariaren ama? - ANA

I- Nola zuen izena Mariaren lehengusina - ISABEL

J- Nola zuen izena Mariaren aitak? - JOAKIN

L- Zer objektu da Biblia? - LIBURU BAT

M- Mariaren hilabetea - MAIATZA

N- Bibliako zein ataletan dago Mariaren bizitza? - ITUN BERRIAN

O- Errege Magoek egin zioten oparietako bat - URREA

P- Zer ez zekarren Mariak jaio zenean? JARORRIZKO BEKATUA

R- Mariaren omenezko objektu sakratua - ERROSARIOA

S- Asteko zein egun da Mariari eskaintzen zaiona? LARUNBATA

T- Non galdu zen Jesus, Mariaren semea, umetan? - TENPLUAN

U- Zenbat seme-alaba izan zituen Mariak? BAT

V- Zer egunetan jaio zen Mariaren semea? ABENDUAREN 25ean

A- Mariaren amaren izena - ANA

B- Zer miraritan zegoen bertan Jesusen ama? - KANAKO EZTEIETAN

C- Zertara Joan ziren Belena Maria eta Jose? - ERROLDARZERA

D- Nola hasten da Mariaren Otoitza? AGUR MARIA

E- Nora Joan ziren ihesi Maria eta Jose Jesus oso txikia zela? - EGIPTORA

F- Zer eramaten diogu Mariari maiatzean? - LOREAK

G- Jesus gurtzera joan ziren hiru erregeetako baten izena - GASPAR

H- Nor zen Jesus hil nahi zuen erregea? HERODES

I- Zer gara bataiatuak gauden guztiok? KRISTAUAK

J- Nor zen Jesus bataiatu zuen Mariaren iloba? JOAN BATAIATZAILEA

L- Deabruari ematen zaion beste izen bat - LUZIFER

M- Nor zen Jesus eta Mariaren laguna izan zen emakumeak? MAGDALAKO MARIA

N- Maria bizi izan zen herria - NAZARET

O- Jesus gurutziltzatu zuten mendiaren izena - GOLGOTA

P- Jesusek irakatsi zigun otoitza - AITAGUREA

R- Jesus bataiatu zuten ibaiaren izena - JORDAN


S- Jesus eta bere familia joaten ziren tenplu juduaren izena - SINAGOGA

T- Nola deitzen da kristauen tenplua? - ELIZA

U- Zein hegazti da Espiritu Santuaren sinboloa? USOA

V- Asteko zein egun zen Kristo hil zutenean? OSTIRALA

Irudia



EKAINA

Hileko motibazioa: Munduaren azken bazterrerraino

eka 2 astea

Motibazioa:

Marcelino Champagnaten asmoen unibertsaltasuna munduko elizbarruti guztietara iristen zen. Muga geografiko eta kulturaletatik harago hedatzen zen haren barrutia, misio maristaren ikuspegi global bat eskainiz.

eka 6 ostirala

Zer egun da gaur? Gaur Marcelino Champagnaten jaia ospatzen dugu.... Adiskide, katekista, anaia, aita... aldi hartan beraren beharra izan zuten hainbat haur eta gazteentzat.

Eta haren jaia ez ezik, gure jaia ere bada; izan ere Marcelinok gaur BIZIRIK JARRAITZEN DU. Ikastetxe honetako Anaia, irakasle, guraso eta ikasle guztiok, gaur bar egiten dugu Marcelinorekin geure esker ona adierazteko: ESKERRIK ASKO, ESKERRIK ASKO zeure bizi-egatik.

Gaurko egunez, 1840ko ekainaren 6ko egunsentian, Marcelinok, lehen anaia maristez inguratuta eta emozioz beterik, "lur" honetako ibilbidea amaitu zuen, eta Jesusekin eta bere Ama Onarekin batera BIZITZEN hasi zen, zeruan. Jakina, lehen anaiak triste zeuden alde batetik, baina esaten zuten: "gure aita joan zaigu, baina santu bat irabazi dugu eta gure artean bizi zenean baino maitasun handiagoz zainduko gaitu"!

Otoitza

Marcelinok zerurantz abiatu aurreko azken egunetan bere anaiei esaten zizkien hitzak gogoratuko ditugu:

"Maite ezazu elkar, Kristok maite zaituzten bezala.

Mariaren Anaiatxoei buruz esan ahal izan dadila lehen kristauei buruz esaten zen hura:

"Begira nola maitate duten elkar".

Bideoa

Marcelinoren ametsa

<https://www.youtube.com/watch?v=PW4bRHGjAM>

Lehiaketa: Zenbat dakizu Marcelinori buruz?

<https://quizizz.com/admin/presentation/60afaf7f914f50001b20d4f2>



Irudia



San Marcelino Champagnat

eka 9 astea

Motibazioa:

Oharturik gaude azken 200 urte hauetan mundua aldatu egin dela, bereziki globalizazioaren eta iraultza digitalaren ondorioz. Mundu interkonektatu eta digital hau gazte garaikideen ingurune naturala da, hortxe jaio direlako eta inor baino hobeto moldatzen direlako bertan.

Otoitza

Jainko maitea, eskerrak ematen dizkizugu Marcelino Champagnaten bizitzagatik, gizon ausarta, bere bizia hurrei irakasten eta haurrak maitatzen eman zuena.

Lagun iezaguzu haren ontasun eta pazientzia eredutik ikas dezagun.

Izan gaitezela Marcelino bezalakoak, beti besteei laguntzeko prest, maitasunez eta ikas zaletasunez betetako mundu bat eraikitzeko.

Amen.

Abestia

Huracán, Hakuna

<https://www.youtube.com/watch?v=nYI5XQhEENE>

Irakurketa: Marcelinoren esperientzia transformatzailea

1816ko urriaren 28an, gertaera bat izan zen Marcelinok bere proiektua berehalaxe mar-txan jartzea eragin zuena. Les Palaisko arotz baten baserrira joateko deitu zioten, Bes-satetik haratago dagoen herrixka bat. Hamazazpi urteko mutil bat azkenetan zegoen bertan. Gazte hark ez zituen ezagutzen gure fedeko gauzarik oinarritzkoenak ere. Mar-celinok irakatsi zizkion oinarri horiek, konfesatu zuen eta ondo hiltzeko prestatu zuen. Gero, inguruko beste gaixo bat bisitatzaera joan zen. Montagneren baserrira itzuli zenean, Juan Bautista jadanik hilda zegoela esan zioten.

Gertaera horrek Marcelino eraldatu egin zuen. Mutikoak Jesusi buruz zuen ezjakinta-sunak konbentzitu zuen Jainkoak anaien kongregazio bat sortzera deitzen ziola, gazteak ebanjelizatzeke, behartsuenak bereziki. Itzulerako bidean, parroki etxera heltzeko eman zuen denboran, jadanik hartua zuen erabakia: Juan Maria Granjoni proposatuko zion bere anaia hezitzaileen komunitateko lehen kide izan zedin.

Marcelino apaiz frantses bat izan zen eta Anaia Maristen Kongregazioa fundatu zuen.


Kongregazio hori haur eta gazteei, bereziki behartsuenei, dotrina irakastera dedikatu zen.

Jarduera

San Marcelino Champagnat

Marcelino apaiz frantses bat izan zen eta Anaia Maristen Kongregazioa fundatu zuen.

Kongregazio hori haur eta gazteei, bereziki behartsuenei, dotrina irakastera dedikatu zen. gazioa fundatu zuen.



Escribe las palabras de acuerdo a los símbolos para ordenar un pensamiento de San Marcelino



Solución: Educar al niño es formar su corazón.

Astea 16 de junio

Motibazioa:

Apustu egiten dugu misio marista hedatzearen alde, gazteek munduko bazter berrietara gidatzeko duten gaitasuna onartuz. Gazteen lidergoari jarraitu behar diogu, beren ikuspegi eta trebetasunei esker misio marista lurralde ezezagun eta desafiatzailenetara bultzatzen.

Otoitza

Marcelino Champagnat maristen lagun eta fundatzailea.

Nik badakit Jesusek zure bizitza maitasunez bete zuela,
eta zuk beti erantzun zeniola.

Nik badakit Maria, zuk esaten zenuen Ama Onak,
familia bat sortzeko deitu zizula,
haurrez eta gazteez arduratuko zen familia bat,
eta zuk zeure ahaleginaz eta lanaz, bete zenuela agindua.

Nik badakit ezin zenuela haur bat ikusi
hari Aitaz Jainkoaz hitz egiteko gogo handia sentitu gabe,
eta harengana hurbildu gabe, ona eta zoriontsua izatera animatzeko.

Marcelino maitea, erregutu Jesusi nire eta nire lagunaren alde,
Jainkoak nitaz espero duena egin dezadan beti,
Maria asko maita dezadan,
ona eta zoriontsua izan nadin
eta besteei ere zoriontsu izaten lagun diezaiedan
bereziki behartsuenei.

Amen

Abestia

Tú serás hoy Champagnat

<https://www.youtube.com/watch?v=CBqHdN-xhHo>

Historia de los maristas de Champagnat, partiendo de la vocación de Marcelino

<https://www.youtube.com/watch?app=desktop&v=V8UULiNTEko>

Irakurketa:

Oroit zaitez elurretan

1823ko otsailean, Marcelinok jakin zuen anaietako bat larri gaixorik zegoela. Haren egoeraz arduratuta, bertara abiatu zen, leku latz batean barna 20 kilometroak oinez eginez, Estanislao anaia lagun zuela.

Bueltan zetozeela, oihan bat zeharkatzean elur ekaitz bortitz baten erdian harrapatuta geratu ziren. Biak gazteak eta indartsuak ziren, baina ordu luzez ibili ondoren, leher egin da geratu ziren. Estanislao anaia, ahituta, ez zen ibiltzeko gauza. Gaua etorri zen. Han hotzez hiltzeko arriskua gero eta handiagoa. Biak Mariari erregutu zioten laguntza eske eta "Oroit zaitez" errezatu zuten.

Horretan, farol baten argia ikusi zuten zeuden lekutik hurbil. Auzoko nekazari bat, Donnet jauna, etxetik irtena zen ukuilura joateko. Normalean etxe barruko atea erabiltzen zuen horretarako, zuzenean ukuilura ematen baitzuen. Fedetik bakarrik azal litekeen arrazoiren batengatik, gau horretan, bere ohituraren kontra eta ekaitza ari zuen arren, farola hartu eta etxetik kanpora irten zen. Bere bizitza guztian oroitu zuen Mar-

celinok pasadizo hura, laguntza hartan Probidentziaren eskua ikusten zuelarik. Eta gure artean geratu da oroitzapena "Oroit zaitez" aipamenarekin.

Gogoeta:

Marcelinok bere bidean eragozpenen bat aurkitzen zuen bakoitzean, horrek lagundu egiten zion karitatean, baikortasunean, ekimen gaitasunean eta diplomazian hazteko. Dударik gabe, "Oroit zaitez" hark beste leiho bat irekitzen du gizonaren aurrean. Zergatik ekin zion bideari? Anaia gaixoarekiko arduragatik. Lehen dizipuluenganako maitasuna izan zen fundatzailearen ezaugarri nabarienetako bat. Marcelinoren mundu kontzeptuala txikia izan liteke, gaur egun jende askok duen kosmobisioarekin alderatuta. Baina haren bihotza oso handia zen. Berak "kristautasun praktikoa" bizi izan zuen, maitasuna ekintzaren bidez zehaztera eramaten zuena. Anaia bat gaixorik zegoela? fundatzailea berehalaxe joango zen hura bisitatzen.

Hori esanda, hala ere, galdetu liteke: zergatik tematu zen itzulerako bideari ekiten halako elur erauntsiarekin? Zenbaitek pentsa lezake hura burugabekeria izan zela. Atzerapenik gabe itzulerako bideari ekiteko izan zitzakeen arrazoiez gain, guk pentsa dezakegu Jainkoaren presentzia eta Mariarengan zuen konfiantza izan zirela, beste batzuek bi aldiz pentsatuko zuketene egoera batean bidaiatzera bultzatu zutenak. Kinka larri hartan errezatu zuen "Oroit zaitez" otoitza ez zen izan hiltzeko etsita dagoen gizon baten azken agurra. Marcelino konbentziturik zegoen Jainkoaren presentziaz: hainbeste aldiz nabaritu zuen Mariaren laguntza, ze inolako zalantzarik gabe espero zuen hark salbatuko zituela. "Oroit zaitez" errealitate espiritual askoz sakonago baten adierazpena izan zen.

Jarduera

Ikasturtearen amaieran gaude, eta ezin dugu agur esan ikasturte honetan gure irakasle eta lankideengandik jaso dugun guztiagatik eskerrak eman gabe. Gure ikaskideak oso garrantzitsuak dira guretzat, seguru udan gogoratuko dugula guretzat esanahi handia izan duen norbait. Pentsa ezazu lagunen bat "whatsapp" bat idaztea gustatuko litzaizukeena, berarekin bizi izan duzun gauza politen bat gogoratuz edo lagun gisa sentiarazi dizunagatik eskerrak emanez.

